

-alde, aniztasun- edo multzo-adierazle

Mikel ZALBIDE

Aspaldiko ezaguna dut Jean Haritschelhar. Ezaguna eta bihotzez estimatua. Ezaupide zahar hori sendotu eta trinkotu egin zaigu orain, begien bistako motiboa dela medio. Iparragirrek bere garaian esandakoa egungo egoerara aldatuz, Haritschelharren omenezko argitalpen berezia dela-eta txosten-erdi bat idatzi gabe, nola pasatu parean? Xumea eta zirtzila izango da, ezinbestean, eskainiko diodan ekarpena. Naizena naiz, ez gehiago, eta daukadan aukera daukat, ez besterik, astiz eta baliabidez: horra nire mugak garbi aitortu. Mugabaldintza horiek bildurik dator beraz, besterik nahi izanik ere, bere omenezko ekarpen sotil hau. Eskerronezko esku-erakutsi gisa har beza Bordeleko irakasle-ohi, Euskal herriko plazagizon ozen eta, ororen gain, euskaltzain argiak.

Besterik nuen hasiera batean begiz joa, Jean Haritschelharri eskaintzeko: XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasiera-aldiko gogo-giroarekin zerikusi zuzena zuen kontua. Nahi izatea ez da ordea aski izaten eta, gabon-jaiak horretan jardun arren, gaia gordinegi daukadala ikusi dut. Gordinegi daukadala eta, neure buruarekin konforme ez gelditzekotan, hobe nukeela inori halako ekarpenik ez eskaini. Hori dela-eta, hasieran begiz jotakoa alde batera utzi eta, aspaldiko partez lexikologiaren alorrera itzuliz¹, lehendik

¹ Bibliografiari begiratu azkarra ematea aski da, noraino alor hori ia mende-laurden batez landu gabe eduki dudan ikusteko. Beste lanetan ibili naiz buru-belarri (eta hala nabil orain ere, ezaguna denez, eta ez dut hortaz bibliografia eguneratua eskuratzeko (are gutxiago dijeritzeko) astirik izan. Konturatzen naiz, nola ez, moztade handia dela hori: hala da, eta halaxe aitortzen dut. Halaz ere, aukeratu dudan azterbidea (neurri on batean *Orotariko Euskal Hiztegiaren* adibide ugari eta fidagarrietan oinarritua) aukeratu dudalarik, kaltea mugatuagoa izango dela espero dut. Irakurleak du, nolana ere, hitza.

buruan nerabilen gai bati heldu diot: *-alde* atzizkiak² (morfemak, elementu lexikalak) multzokari edo aniztasun-adierazle gisa izana duen³ balioa aztertzeari. Badakit erabilera-indar mugatukoa dela *-alde* atzizkiaren adiera-kontu hori, lexiko-sorkuntzaren ikuspegitik lanean ari diren terminologoen artean. Toponimian eta oro har onomastikan ari direnentzat, aldiz, atzizki horrek badu aparteko garrantzirik. Eskain dezakedan apurra, bere eskasean ere, lagungarri izatea nahi nuke bigarren azterbide horietan barrena murgildurik ari direnentzat. Hori da, behintzat, gaurko saio labur honen asmoa.

I. *-ALDE* MORFEMAREN ZENBAIT DIMENTSIO

Ez da lehenengo aldia, egia esan, *-alde* morfemaren peskisan dihardudana. Gutxitan heldu izan diot, ordea, elementu polisemiko horren berriazko azterketari. Esangura anitzeko elementu lexikal autonomoekin eta hitz-elkar-te edo morfema lexiko-sortzaileekin ibiltzen ohitua izan arren, terminologia teknikoaren esparruan jarduna naiz sarrien, hiztegegintzari dagokionez. Bistan da harreman sendorik baduela *alde* elementuak hitz-elkarketarekin, elkarte molde zahar (*artalde, galalde, aurrealde, ipurtalde, arratsalde...*) eta berrieekin (*hots, industrialde, zonalde* edo *merinalde* modukoekin). Hori guztia egia izanik ere, ongi jabeturik nago esparru berrian (niretzat berrian) sartzen naizela gaurkoan: nabarmen gainditzen du hitz-morfema horrek, izan ere, hitz elkartuen eta morfema lexiko-sortzaile emankorren saila. Nabarmen gaintzen du bere ingurumen-baldintzei dagozkienetan eta, hori aski ez balitz, osagarritzko buruhaustek ekartzen dizkio horrek bere analisi semantiko zorrotza egin nahi duenari. Urrundik ere behar bezala menderatzen ez dudan esparruan sartzera noala badakit: gutxitxo landurik dagoen zenbait pentze-larretan sartzea eskatzen dit saio labur honek eta sarbide hori, behar bezain sendoa izatea nahi bada, ordu askotxo hartara emanaz baizik ezin egin liteke. Ez dut nik hainbesteko astia hartzerik izan, laneko kontuak direla medio. Berme-oinarri horren faltan, lehendik buruan nituen ohar-kezka batzuen

² Euskarazko lanetan maiz izan duen adiera zabalean har bedi, hemen, *atzizki* izena.

³ Izana duen eta oraindik, zenbait leku eta ingurumenetan, itxuraz bizirik duen: ikuskizun dago azken kontu hori, nire ezagutza mugatuagatik. Frogaturik dagoena, nolana ere, zera da: Leizarraga berazkoiztarragandik hasita Orixe, Iraizoz eta Xalbadorrenganaino bizirik etorri dela aniztasun- edo multzo-adierako *alde* elementua. Aurrerago ikusiko dugunez, *-alde* atzizkiaren eta *alde* lexema burujabearen arteko eztabaida kontzeptuala hor dago, argitasun eske.

inguruan jardungo dut gaurkoan, ezinbestean. Barkatuko ahal zait, azalpenaren hainbat muga eta gabezia. Oker esandakoetan neu naiz, jakina, errudun bakar.

Gatozen beraz harira. Gatozen hari-matazara, nahiago bada. Hari-mataza baitauka berekin, eta ez nolana hikoia, gaurko aztergai honek. Askatu beharreko korapilo ugari ditu, ene ustez, *alde* elementuak. Bost puntu nagusi ikusten ditut nik, ondo argitu gabeko auzigaiei dagozkienean. Hona bostak, labur-labur emanik:

- a) *Autonomia lexikalaren zenbatekoa*. Korapilo sendoa dakar, lehenik eta behin, *alde*-ren atzizki-izaerak edo izaerarik ezak: hots, *alde* elementuak autonomia lexikala duen edo ez duen. Kontu horri dagokionez, *alde* elementua aztertzerakoan egoera dikotomikotik baino *continuum*-aren formulazio gradualetik hurbilago gaudela dirudi. Oso diferentea da, alde horretatik, *talde*-rekin gertatzen dena. Han ez dago duda handirik, zenbait lexikologia-saiok besterik badio ere: lexema autonomoa da *talde*, ez autonomia lexikalik gabeko atzizkia. Besterik da, ordea, *alde*-rekin gertatzen dena: lexema autonomo gisa jokatzeko du batzuetan, izen arrunt moduan, eta autonomia lexikalik gabeko atzizki moduan dihardu besteetan. Noiz da *alde* hitz, eta noiz atzizki? Beste hitzetan esanik, noraino du *alde*-k autonomia lexikal osoa, lexema soil eta beregain gisa jarduteko aukera ematen diona? Aldiz nondik aurrera hitz egin behar da, autonomia-galeraren norabide jakinean barrera goazelarik, *-alde* atzizki lexikogenetiko soilaz, behinolako autonomia lexikala erabat galdutako eratorpen-morfema hutsaz alegia?
- b) *Posposizio-izaera*. Norabide bi ditu, euskaraz, autonomia-lexikalaren galera-ardatzak. Hitzetik atzizkirakoa da lehenengoa; hitzetik posposiziorakoa bigarrena. Gatozen bigarren honetara: nondik aurrera hitz egin liteke posposiziozko gramatikalizazioaz? Eratorpen-atzizkien esparrutik jauzi eginaz korapilo sendoa ageri du, esan berri dugunez, *alde* hitzaren jokabide morfosintaktikoak, batez ere *aldean*, *aldeko*, *aldetik*, *aldera* moduko posposizio gisakoetan. Bistan da *etxe aldera joatea* ez dela, ezinbestean behintzat, norberaren edo inoren *etxaldera joatea*. Are gutxiago etxearen alde batera (aurrealdera, atzealdera edo albo batera) joatea. Ez da gauza bera, lehenengo adibidean (“ilutzen hasi du, eta etxe aldera hasi beharko dugu” modukoan) adiera lexikalaren galera modu bat duelako *alde* horrek, bere posposizio-izaera (eta, horrenbestez, monema funtzionalen⁴ gisako “gramatikalt-

⁴ *Monema funtzional* diodanean, Denise François-en bidetik noa. Ikus Martinet (zuz.) 1972, 18-9. or.

sunan) indartuz doalarik. Hor ere errazagoa da ordea *continuum* moduko bat antzematea, *-bide* elementuarekin gertatu ohi den eran, zuri eta beltz arteko bereizkuntza zorrotzaz (hots: elementu lexe-matiko hutsen eta gramatikalizatuen arteko zatibiketa unibokoaz) jardutea baino.

Lehenengo bi puntuok labur bilduz, bistan dago elementu polisemikoa izanik ere aski ongi identifikatuak daudela *alde* lexemaren adiera gehienak. Ez da halakorik gertatzen, aldiz, *continuum* horren puntamutur bietako elementuekin: posposizio modukoekin batetik, eta atzizkiekin bestetik. Ohargarria da, bestetik, eratorpen-morfema bihurturiko lexema zaharren aldi bereko iraupen eta zabalkuntza semantikoa. Kasu batean zein bestean, autonomia lexikalaren galera nabarmen da, hein batean edo bestean.

- c) *Etimologia*. Nondik dator *alde*? Azterkizun nabarra ageri du, alde askotzatik, bere etimologiak: *-arte* eta *-aldi* modukoekin zerikusirik izan dezakeen etimologia-zatiaz ari naiz, batetik, eta *alde*, *alt(h)e*-ren baitako *te/de* hori bestelako aniztasun- edo multzo-adierazleekin (*dute*, *dakite*, *daude*, *esateko*, *ematera*; *dabiltza*, *garamatzate*...) konparatzera eraman lezakeen zatia, bestetik. Horrezaz gainera, *-alde* atzizkia *-ara* hitz-bukaerekin konparatzen saiatzeak ere baluke interesik.
- d) *Epentesi-kontua*. Aurretik esandakoaz gainera hots-ezaugarri argia du berekin, eta zer pentsatua ematen du sarri, *alde / talde* bikoteak, askotan *egi / tegi*, *arte / tarte*, *asun / tasun* eta abarreko aldaeren antzera agertu ohi denak⁵. Kasu honetan badago, gainera, *-alde /-kalde* bikoizketarik. *-alde /-talde*-ren epentesia noraino arauzko den, eta *-alde/-kalde* horren bigarren aldaerak alemanezko *Fugenelement* direlakoekin (*sukalde* delakoan, demagun) harremanik ba ote duen, ilun dago egungo egunean. Zenbait kasutan (*aurrekalde*, *azpikalde* modukoetan) *Fugenelement* argi baten aurrean gaudela pentsa liteke: *aurreko alde*, *azpiko alde* modukoak ordain direla, alegia, *aurrekalde* edo *azpikalde* horiek. Pentsatzea gauza bat da, ordea, eta frogaturik izatea bestea. Hortik ere balegoke beraz zer argiturik, gaur-gaurkoz ondorio sendotara nekez irits daitekeela argi aitortuz.

⁵ cf. Luis Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas*, aurrerantzean PVCD, 36-41. or.: <<adición de la T epentética>>. Cf orobat R. M. Azkueren *Morfología Vasca*, aurrerantzean MV, 52. or.: << Los que reciben la t son estos diez y seis: *ada*, *aile*, *ailu*, *alde*, *aldi*, *ara*, *ari*, *ar*, *arre*, *arzun* o *asun*, *aun* o *un*, *egi*, *eri* (15 dakartza benetan). Ikus, azkenik, alemanezko *Fugenelement*: esate baterako in W. Fleischer, 1975: *Wortbildung der Gegenwartssprache*.

e) *Semantika*. Korapilo handia dakar, azkenik, gaurko saiotxo honen ardatz izan nahi duen kontuak: aipagai dugun *-alde* atzizkiaren esanahiak. Bere esanahiak edota, nahiago bada, bere esanahi-esparruak oro har, eta esanahi jakin batek preseski. Gogoan har bedi, berriro ere, esparru guztia kontuan hartu beharko den arren *-alde* atzizkia dugula benetako aztergai, ez *alde* lexema. Alde handia dago batetik bestera, eta ez naiz hitz-jokoan bila ari, semantikaren esparruan ere. Horixe da, hain zuzen, gaurkoan argitzen saiatu nahi nukeena.

Bost puntuok izan beharko ditugu hortaz, neurri batean edo bestean, azterkizun. Bosgarren puntuari heldu nahi diot berariaz: *alde* hitzaren eta batez ere *alde* elementuaren adierak oro har, eta *-alde* atzizkiaren aniztasun-eta multzo-esangura bereziki, horiek izango ditugu gaurkoan aztergai nagusi.

II. ERABILITAKO ITURBURUAK

Aztergaia argitzen saiatze aldera, batez ere bost iturri hartuko ditugu kontuan, etxekoan artean: Resurrección María Azkueren 1905eko *hiztegia* (aurrerantzean DVEF) eta *Morfología Vasca* (aurrerantzean MV), Koldo Mitxelenaren *Apellidos Vascos* (aurrerantzean AV), Luis Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas* (aurrerantzean PVCD) eta Mitxelenaren zuzendaritzapean bideratutako *Orotariko Euskal Hiztegia* (aurrerantzean OEH). Egia da Pierre Lhanderen *Dictionnaire Basque-Français* (DBF), Plazido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano* (DVC) eta *Afijos Vascos* (AV), Ibon Sarasolaren *Hauta Lanerako Euskal Hiztegia* (HLEH), UZEIren *Atzekoz aurrera* (AA), *Diccionario Labayru* (DL) eta Adorez Zazpi-ren *Hiru Mila Hiztegia* (HMH) ere eskuartearen izan ditudala⁶. Informazio-eskaintzaren ugaria eta kontzeptu nagusien egituratze-maila ikusirik, halere, lehenengo bostetan zentratu naiz gaurko saio honetan.

Kanpoko konparazioez ezer gutxi esango dut sarrerako honetan: ikus beza lekuan lekuko aipamena, horren egarrian denak. Kanpoko konparazio-elementuez baino areago euskararen beraren barne-aukerez baliatuko naiz, nolnahi ere, gaurkoan. Bistan da hizkuntza idatziaren historia laburrak zaildu egiten duela barne-lanbide hori, behin baino gehiagotan esan izan denez. Erabat ezinezkoa ez da ordea eta, honelako kasuetan bereziki, argibide sendo samarrik eman dezakeela uste dut. Uste horrek eraman nau, hain zuzen, azter-

⁶ Kontraste-lanerako maiz erabili ditut, bestalde, María Moliner-en *Diccionario de Uso del Español* eta Joan Corominas-en *Breve Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*.

ketatxoa honela egituratzera. Gatozen beraz, besterik gabe, etxeko iturburu horietara.

II.1. *-alde* R. M. Azkueren arabera

Azalpen zabala eskainia dio Azkuek, bere hiztegian, *alde* sarrera lexikalari. Bai hitz autonomo gisa eta bai formazio gramatikalizatu moduan (posposizioa aurrez aurre aipatu gabe, ordea) hitz horrek dituen erabilera eta adiera nagusiak aipatzen ditu, batez ere, hamasei zatiko deskribapenean⁷. *Morfología Vasca*-n landu izan du, sakonago, eratorpenezko *-alde* atzizkia. Azalpen zehatza eta, nire ustez, funtsean arteza emana du Azkuek, atzizki horretaz. Hona bere azalpenaren atarikoan (MV, 9) zer dioen: *Alde* (...) en tres de sus acepciones <<región, cerca y grupo>> vive en calidad de sufijo en vocablos como *basalde*, *goizalde* y *artalde*. Gero ere kontuan hartu beharreko datu bi eskaintzen ditu Azkuek, *Morfologiaren* sarrerako horretan: a) hiru esanahi ditu *-alde* atzizkiak, bere esanean, eta hiru horietan azkena multzo- edo aniztasun-adierakoa da. *Artalde* hitzean (eta, besterik esaten ez den artean, bere antzekoetan) *art-* lexema-enbor hotsaldatu zaharra plus *-alde* elementua⁸ zatikatu behar da, ez *ar(t)* batetik eta *talde* bestetik. Labur bilduz, beste hainbat hitz-elkartetako lehen osagaia du *artalde* horrek: *artetxe*, *artola*, *artegi*, *artile*, *artantzu* eta abarretan ageri den bera. Bigarren elementuaren esangura, berriz, kolektiboa da (egungo *ardiak* pluralezkoaren baliokide hurbila), ez posiziozkoa (nongoa) edo direkzionala (zer alderditakoa).

Aurrerago (MV, 80), eratorpen-atzizkiez ari delarik berariaz, multzokari edo aniztasun-atzizkien sailean sartzen du *-alde* bete-bete. Bere hitzetan esateko, “derivativos nominales colectivos” direlakoez ari delarik honako atzizki hauek sartzen ditu bertan: “Los vocablos así formados indican conjunto de seres, agrupación o colectividad. Los sufijos que intervienen en su formación son *alde*, *di*, *eri*, *kada* (*tara*, *tra*, *ta*), *tegi*, *tza* (*tze*), *z* y *zko*”.

Epentesia dela-eta, bestalde, *alde*-ren eta *talde*-ren arteko kontuak honela agertuak ditu Azkuek (MV, 80): “*Alde*. Originariamente nombre sustantivo, <<grupo, rebaño>>, que en su evolución a la categoría de sufijo y al retrotraerse a su primitiva categoría ha quedado convertido en *talde*. Difícilmente se comprendería hoy *aldeka* *yoan gara* por <<hemos ido por grupos>>, en cambio *taldeka* *yoan gara* nos es familiar. Al unirse a otros vocablos, con unos

⁷ Bada tartean, halere, multzo-adierako *-alde* atzizkiari eskaintzen dion zatitxoa.

⁸ Eratorpen-atzizkitzat hartu behar den, edo begien aurrean duguna behinolako lexema burujabea, egungo egunean zeharo ihartua, den ez da, berritri esan, saio honen aztergai nagusi.

se dice *alde*, con otros *talde*⁹”. Bada, hor ere, kontuan hartzeko elementurik: “Originariamente nombre sustantivo <<grupo, rebaño>>” da *alde* edo *-alde*, R. M. Azkuerentzat. Ez dio inon, jakina, *alde* elementua posizio-adierazle ez denik. Argi dio, ordea, kasu horretan bederen zer den: aniztasun- edo multzo-adierazle da *alde* jatorriz, bere esanean¹⁰. Informazioa ez da hor amaitzen: *alde*-ren autonomia lexikalari dagokionez, eratorpen-morfemen statusera etorria dago. Besterik ere uler liteke, bere azalpenetik, emankortasun-mailaz denaz bezainbatean. Kolektibo moduan bederen, R. M. Azkueren esanean *-alde* atzizkia ez da emankorra. Ez emankorra eta ez erdi-emankorra edo, Wolfgang Fleischerrek (1975: 71) Kubrjakovagandik jasota esango zukeenez, *nicht produktiv aber aktiv* modukoa.

Bada azkenik, Azkueren MVko aipamenekin amaitzeko, kontuan hartu beharreko beste zera: *alde*-ren etimologiazko bilaketa-saiorik egin nahi bada bihar edo etzi, pista posibleetako bat (oso iluna eta hutsala, baina ezer ez baino hobea) emanik uzten du Azkuek, “afijos (adverbiales) polisémicos” direlakoetz ari delarik (MV, 227-8; 231; 238; 360-2).

Labur bilduz: Azkueren esanean multzokari edo aniztasun-atzizki da hainbat adibidetako *-alde*. Ihartutako morfema-eraikuntza da ordea, bere ustez, atzizki hori berekin daraman hitz eratorria: multzo-atzizki horrek eta are *alde* multzo-lexemak aspaldi utzi zioten emankor izateari, baita ulergarri izateari ere. Multzo-adiera hori azaldu nahi duenak *talde* lexemara edota *-talde* “atzizki”ra jo behar du egungo egunean, euskaldun-jendeak ulertuko badio. Aldiz hitzen behinolako esanahiaz jabetu nahi duenak, toponimian eta onomastikan ari denak bereziki, garrantzitsua du jatorrizko (apalago eta zuhurrago esanik, behinolako) adiera horren berri izatea.

II.2.- *alde* K. Mitxelenaren *Apellidos Vascos*-en

Baldin *-alde* atzizkiaren tratamendurako erreferentzia moduan Koldo Mitxelenaren *Apellidos Vascos* hartzen bada, zera ikus liteke: *Apellidos Vascos* hori betea dagoela *-alde* atzizkia daramaten izenez. Deitura askoren jatorria toponi-

⁹ Konkretuki, *auntzalde*, *artalde*, *beialde*, *gizalde*, *xitoalde*, *urdalde*, baina *beitalde*, *beortalde*, *txerritalde* eta *umetalde* ematen ditu epentesizko t-gabeen eta t-dunen adibide moduan.

¹⁰ Lastima da, alde horretatik, beste nonbait (MV, 124) aipatzen duen *Errialde* toponimoaren esplikazio-bidea aurrez aurre landu ez izana.

moa izanik¹¹, *-alde* amaierako toponimo zahar askoren bilgune aberatsa da liburu hori. Abizenez ari da ordea Mitxelena bertan, ez semantikaz edo lexikologiaz, eta oso argibide neurtuak ematen ditu *alde* hitzaren edo *-alde* atzizkiaren adieraz. Horrela, *alde* hitzaz ari delarik, honako hau dio bertan: “<<lado>>, <<región>> (ronc. Sul. alt(h)e” (Mitxelena, 1973: 43). Atzizki moduan ere jardun ohi duela eransten du berehala; atzizki horren adiera-sortaz ez du, ordea, inolako aipamenik egiten. Labur bilduz, iturburu ederra da *Apellidos Vascos* aurrerago ikusiko dugun hainbat adibide argi aurrez aurre aztertu ahal izateko. Semantikazko kontuei dagokienean, aldiz, ezer gutxi atera liteke bertatik. Mitxelenak berak gidaturiko *OEH*-ra joan behar da horrelakoetan, zehaztasun bila.

II.3.- *alde* L. Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas-en*

Lexiko-berrikuntzaren alorrean jardundakoon artean bertako liburu gutxik izan du, hainbat urtez, Luis Villasanteren *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas-en* pareko eraginik. Liburuxka hark asmo xumea izan zuen jatorriz, euskaltzainburu-ohiaren beraren hitzetan. Asmo xumea izanik ere oihartzun handiko argitalpena gertatu zen gure alorrean: behin eta berriro erabili izan zen, maileguzko hitzen, hitz elkartuen eta eratorrien alorreko auzi bihurriak argitzen saiatzeko. Erreferentziazko jakin-iturri bihurtu zen argitalpen hura, argitara orduko, eta iraun ere horrelaxe iraun zuen hogeitatu bat urtez, kontu haietan murgil eginik jarduten genuen gehienontzat. Villasantek aipagai zuen lexiko-berrikuntzaren kontua ez zen, gainera, jakitezko aztergai hutsa: berrogeita hamar urtetik beherako gehienek ahaztua edo inoiz entzun gabea badute ere, hortik gorako askok gogoan dugu maileguzko hitzen eta hitz-elkarteen alorreko gorabehera askotxo, idazkeratik beretik hasita, zenbaterainoko arazo-iturri izatera iritsia zen orain dela hogeita bost bat urte¹². Ez da beraz gutxiestekoa, inola ere, liburuxka haren garrantzia: bai arazoa zuzen planteatzen, eta bai irtenbide egokiak bilatzen, lagungarri sendo gertatu zen PVCD hura¹³.

¹¹ Balegoke esaera hori zehazteko modurik. Alemanezko deituren azterketetan *Wohnstättennamen* (Kunze, 2003: 95) esan ohi zaien parekoak dira, funtsean, lantxo honetarako *Apellidos Vascos*-etik jaso ditugun adibide gehienak. Egia da *Wohnstättennamen* eta *Herkunftsnamen* artean muga-arazorik maiz agertu ohi dela (Kunze, 2003: 95; Berger, 1993: 13; König, 1992: 129). Gehien-gehienetan lehenengo multzokoak ditugu, ordea, Mitxelenak bere liburu horretan hain ugari dokumentatzen dituen deitura-izenak.

¹² Hain arazo handia non, 1983tik aurrera, lehentasunezko aztergai eta erabakizun bihurtu zen Hizkuntza Akademiarentzat. Dударik duenak jo beza Euskaltzaindiaren beraren *Eusker*a agerkerira. Bada horrezaz guztiaz, jakina, emendiozko jakin-iturriak ere.

¹³ Zabalkunde edo dibulgazio asmoz egin bazuen ere Villasantek bere liburuxka hura, doktorego-tesien esparrura ere iritsi zen bere eragina: horretaz jabetzeko ez daukagu, zori-enez, euskaltzain-lagunon esparrutik irten beharrik.

Dimentsio extralinguistiko hori alboratuz, gatozen ordea mamira: kasu honetan, eratorpen-atzizki emankorren alorrera. Atzizkiez ari zelarrik, berriaz aztertu zituen Villasantek *-alde* eta *-talde* osagai lexikalak. Horrezaz gainera, konposizioarekin batean posposizio-bidea ere landu zuen liburuxkan (oso iragaitzaz halere), eta aipamen horien ildotik posposiziozko *alde* ere begien bistan izan zuen une batez (PVCD, 44). Gatozen azalpenaren muinera. Zer dio Villasantek, funtsaren funtsean, *-alde* atzizkiak eta *talde* hitzaz edo “atzizki”-az? Liburuxka hura zabalkunde-lanerako pentsatua izanik, ezer gutxi dio atzizki bakoitzaz. Konkretuki, *-alde* atzizkiak azalpen labur hau eskaintzen du: “Se emplea también como vocablo independiente. Significa parte, región, proximidad. Muy usual en Toponimia. Ejemplos: *Errekalde* = región próxima al río. *Errotalde* = región próxima al molino. *Elizalde*= id. a la iglesia. *Itsasalde* = costa, región del mar. Algunas palabras formadas con este sufijo: *orrialde* = página (lit. parte de hoja). *Lurralde* = territorio. *Eskualde* = región. *Iparralde* = norte. *Sortalde* = oriente. *Mendebaldeko* = occidental. En Axular figuran: *aitzinalde*, *arratsalde*, *barrenalde*, *gainalde*, *gibelalde*”. Ikusten denez, euskaltzainburu-ohia oso zuhur ageri da esplikazioetan. Adibideen deskribapen hutsetik aurrera ez doa, ia, Luis Villasanteren azalpen hori. Ohar batzuk, halere, argi atera litezke goiko pasarte horretatik. Honako ohar hauek, besteak beste:

a) *Aniztasun- edo multzo-adierarik ez*

Villasanteren azalpen horren arabera, *alde* lexema edo atzizkiak ez du aniztasun- edo multzo-adierarik. Lexema edo atzizki horren esanahi bakarrak *parte*, *región* eta *proximidad* dira. Hirurak ere parte- edo zati-adierako posizio-emaile edo direkzio-erakusle argiak (lekuzko hitzak edo atzizkiak normalean, ez denborazkoak edo modalak). Posizio- edo direkzio-erakusle arruntak hortaz, eta ez multzo-adierazleak. PVCD-en emandako adibide konkretuak, eta adibide horien esplikazioak batez ere, lekuzko adiera ukaezinez inpregnaturik daude oro har. Eten handia ageri da hor, bistan denez, Azkueren formulazioarekin. Gero (PVCD, 118) leuntzen du zerbait Azkueretik eten hori, *talde* lexema edo atzizkia azaltzerakoan. Oso difuminatua gelditzen da ordea, Villasanteren baitan, *alde* lexemaren edo *-alde* atzizkiaren aniztasun- edo multzo-adiera hori. Lausotua definizio aldetik eta lausotua, batez ere, liburu horretan hain leku zentrala duten adibideen sailean.

Ez dut uste deskuidoz gertatua denik, inola ere, Azkueren azalpenetik Villasanteren definizio-saiora hain nabaria den lerrakuntza hori. Villasantek oso argi izan zuen, liburua idazterakoan eta Mitxelenaren oin-ohar erakarga-

rriez argitara ematerakoan, lexiko-berrikuntzaren premian zegoela euskara¹⁴. Argi zuen kontu hori eta, horrexegatik, lexiko-berrikuntzarako emankorrenak eta premiazkoenak iruditu zitzaizkion atzizkietan edo atzizki-aldaeretan zentratu zen bera. Behinolako lexema eta atzizki-aldaera ihartuak, toponimian eta onomastikan hain sarri ageri diren multzokarizko *-aga* edo *-(g)oa* atzizkiak adibidez, ez zituen oro har kontuan izan¹⁵. Hori ez da inolako defektu, aurrez aurre aitortutako helburura iristeko bide laburrena aukeratzen asmatu izana baizik.

b) Adibide askotxo, berri samarrak

Lexiko-sorkuntzaren ikuspegitik ari denez nagusiki, eratorpen emankorrek eta, are, osaera berriak edo berri samarrak (*-alde* emankorraz sortuak) ditu Villasantek bereziki gogoan. Ez horiek bakarrik (cf. *eskualde* modukoak batetik, eta Axulargandik jasotako *barrenalde*, *aitzinalde* modukoak bestetik), baina bai bereziki: *orrialde*, *Lurralde*, *mendebalde*, *sortalde*, *iparralde*... OEHren arabera, berrikitan baizik ez dira *iparralde*, *ekialde*, *lurralde*, *sortalde* eta *mendebalde*¹⁶ dokumentatzen. *Ekialte* zaharrik bada Erronkarin, han-

¹⁴ Ikus, esate baterako PVCDko pasarteok: “para renovar su léxico, la lengua cuenta con estos tres caminos: composición, derivación y recurso a los préstamos (...) el euskera no puede permitirse en manera alguna el lujo (sería un lujo suicida) de cerrar ninguna de las tres puertas citadas, pues de las tres tiene necesidad” Ondoko esaldian dakar Villasantek, nire ustez, PVCDko bere jokabidearen argudio argiena: “también prescindiremos de ciertos sufijos que, dada su área reducida o escaso poder germinativo, parecen menos importantes. Desde luego, no pretendemos hacer una exposición exhaustiva de un campo que de suyo es muy vasto”. Zabalkunde asmozko laburpena da berea, lexiko-berrikuntzaren ikuspegitik eratua; eta, horrexegatik, “ciertos sufijos de escaso poder germinativo” alde batera utziko ditu. Garbiago ezin esan liteke, zergatik atzizki batzuk, edo atzizki batzuen azpi-adiera batzuk, alde batera utzi izan diren. Datu hori begien bistan izan behar da, PVCD bere osoan baloratzeko.

¹⁵ Azken atzizki hori landu zuen zertxobait, egia da: baina beste adiera bati (abstrakziozko eratorpenari) zegokion neurrian bakarrik. Alfonso Irigoienek aipamen huts gisa utzi zuen, aitzitik, *-(g)oa* atzizkiaren aniztasun- edo multzo-adiera.

¹⁶ Gauza bi dira, alde horretatik, *mendebal* “viento del oeste, vendaval” eta *mendebalde* “oeste, occidente”. Lehena aspaldidanik dokumentatua dago. Ez *lado*-rekin eta ez *conjunto*-rekin du zerikusia, maileguzko jatorria baizik. Bigarrena, aldiz, XX. mendean zabaldu da arras, XIX. mendean erdialdetik aurrera (Hiribarren, Duvoisin) *mendebal-alde* eta antzekoen eskutik izandako lehen birmoldatze-saioen ondoan. Toponomastikazko ikerlanetarako indar mugatua du bigarren *-alde* horrek, Axularren garaitiko forma zaharraren ondoan aski ahula.

hemengo *eguzkitza* bezala “*solana*” adieraz hartu beharrekoa dirudiena¹⁷. Ez, aldiz, euskal letretan berrikitanago zabaldu diren puntu kardinalen izenik¹⁸. Horrek berak ere zer pentsatua ematen du: aspaldiko hitza eta aspaldiko atzizkia da *-alde*, horretan ez dago dudarik. Bere “adiera nagusi” bat edo beste emateko orduan, aldiz, azken aldiko adibideetara jo da hainbatean. Azken orduko formetan oinarritu izanak nekez berme-garantia sendorik eskain dezake, eskuartean dugun zereginerako.

c) *Esplikazio batzuk, dudamudazkoak*

Errekalde, *errotalde* edo *elizalde* esplikatzeko ematen den azalpena (*Errekalde* = región próxima al río. *Errotalde* = región próxima al molino. *Elizalde*= id. a la iglesia) aski klasikoa da, batetik, eta dudarik gabe segurua zenbait kasutan. Hori ez da, ordea, beti horrela. Bigarren (edo hirugarren) esplikaziorik ere izan dezakete hitzarte horiek, oro har. Beste adierarik izan dezakete eta, zenbait kasutan (batez ere forma zaharretan, ez inola ere berrietan), bigarren esplikazio hori seguruagoa dela dirudi, ebidentzia dokumentalen argitan. Aurrerago helduko zaio gaiari.

II.4.- *alde* hitza Orotariko Euskal Hiztegian

OEH dugu gaur egun, oker ez banago, *alde* hitzaren eta *-alde* atzizkiaren definizio semantikoari aurrez aurre heltzen hasteko jakin-iturririk egokiena. Hots, datu fidagarritz hornituena eta, planteamendu formalen aldetik, egitura-tuena. Hiztegi horretaz baliatuko naiz beraz, lehenik eta behin, nire saiotox honetan.

Informazio xehe eta aski zabala dakar OEHk, adiera diferenteko *alde*-ei buruz. Guztira 45 orrialdeko informazioa dakar, adibide ugariz horniturik, *alde* sarrera lexikalak. OEHren azalpen zabal horretan, egia esan, *alde* lexema da aztergai nagusi¹⁹. Hitzek eta atzizkiek horrelako kasuetan ageri duten hur-

¹⁷ Errokariko *ekialteaz* jabetzeko ikus, adibidez, Lopez-Mugartza, 1993. Ikus, era berean, OEHk berariaz aipatzen duen adiera hau: *ekialde*, << sitio soleado, *de mucho sol*>>. Hots, aurrerago azalduko den aniztasun- edo multzo-adierako *-alde*, garbia da *ekialde* zaharra, OEHk jasotako azalpenaren arabera.

¹⁸ Paskual Iturriaga eta Archu izanak dira, itxuraz, hitz-altxoraren berritze-lan horretan aitzindarietakoak. Horiek eta, handik gutxira, Hiribarren eta Duvoisin.

¹⁹ Aztergai nagusi eta, kasik, bakar. *-alde* atzizkiaz ez da gauza handirik esaten sarrera horretan. Urrutitxo gelditzen da azalpen sistematizatu hori, bestela esanik, *-alde* atzizkiaren ikuspuntutik. Azalpenean ezer gutxi esaten bada ere aurrez aurre, ez da argitasunik gabea.

biltasuna kontuan izanik, halere, oso interesgarria da OEHk *alde*-ren sarrera lexikalean dakarren hainbat argibide. Kontua ez da, gainera, hor amaitzen. Azalpen horretatik kanpora, banan banako hitzen (*alde* amaierako hitzen edo atzizkien) sarreretan, informazio osagarria dator izan ere: inola ere alde batera ezin utzizko informazioa. Bata eta bestea kontuan izango da, beraz, saio honetan. Zer dio OEHk, hortaz, *alde* elementuaz?

Alde batera uzten baditugu *alde* hitzaren bikoiztapenez (*alde-aldean*, *alde-aldera*, *alde-aldetik*; *aldeak alde*; *alderen alde*, *alderik alde*) edo kasu-sintagma idiomatizatuz eraturiko lexiak eta lexemak (*aldean* “*al lado*”, *alderen beste* “*de parte a parte*”, *alde guztiz* “*absolutamente*”, *aldez aurretik* “*previamente*”, *aldeko* “*favorable a*”, *aldera* “*para con, respecto a*”), hiru multzo handitan banatzen du OEHk *alde* hitzaren erabilera. Ikus dezagun nola:

I. Izen moduan

I.1. *lado*²⁰, *zona*, *parte*²¹, *porción*; *manera*²²; *partido*²³. v. *alderdi*.

I.2. *referido a tiempo*²⁴.

²⁰ Leku-adierazle gisa diharduen kasuotan, OEHk ongi dioenez gaztelaniazko *sitio*-tik baino hurbilago *lado*, *zona*, *parte* modukoetatik dago *alde*: hots, ingelesezko *side*-ren edota alemanezko *Seite*-ren pareko elementutik. Hona zenbait adibide, OEHtik jasoak: “Ni ez ikusteagatik begiak beste aldera biurtzen dituzte” OEH I, 679. “Berria lauster hedatu zen alde guzietarat” OEH I, 679. “Etzen alde guzietarik entzuten bozkariozko oihurik baizik” OEH I, 679. “Alde askotatik dakigu” OEH I, 681. “Gizonik elduenetako bana edo biña alde bakotxetik” OEH I, 681. “bidearen gañeko aldean” OEH I, 683. “Bata eskuineko aldean, eta bertzea ezkerrekoan” OEH I, 679. “Alde batetik artalde ta ganaduak, eta beste aldetik berriz (..) txingor ta kazkabarrak”. OEH I, 682

²¹ Uste baino hurbilago daude, esanahiaren aldetik, lehen eta bigarren adibide-multzook. OEHren bereizketari eutsi nahirik, banandurik ematen dira halere. Ikus dezagun bigarren multzo honetako zenbait adibide, lehenengo multzoan ere eman ezinik ez legokeena: “Etxe bi alde direnak” (“Las casas partidas en dos”) OEH I, 81. “Bere eginkizunen alde handi bat bere bi seme(en) eskuetan ipiñi” OEH I, 681.

²² Modu-adierazle gisa uler litezke, besteak beste, ondoko adibideok: “Agudo itzaliko diagu alde horretara (de esa forma) sua” (OEHtik jaso eta batura ekarria, OEH I, 678. or). “hamar-bat hitz (..) bi aldetara eskribatzen direnak” OEH I, 78. “Era ta Korte handi bat, (...) era ta alde guzietara txit zoragarria” OEH I, 679. Baina kontuak ez dira erabat argiak: *alde* hau, esate baterako, *alde*₁ ere izan liteke.

²³ Babes-gogo adierazle gisa, besteak beste, adibide moduok eman litezke: “Jinkoak bere zerbitxariaren aldia hartu zizin” (“Tomó la defensa, el partido”) OEH I, 679.

²⁴ *Goizalde* eta *arratsalde* dira, aurrez aurreko azalpenei dagokienez, multzo honetako ia adibide bakarrak. Hiztegia xehekiro arakatuz, aldiz, besterik ere agertzen da han-hemen.

- I.3. *como posposición*²⁵, *declinado, tras tema nudo, gen. o rel.*
- I.4. *cara anterior o delantera*²⁶.
- I.5. *grupo, bando; cantidad, <<Quantité, nombre>>*
- I.6. *diferencia*²⁷, *ventaja (diferencia a favor)*
- I.7. *aliado, partidario*²⁸.

II.- Adberbio moduan

- II.1.- *a favor*²⁹; *por, para; hacia.*
- II.2.- *cerca de*³⁰, *al lado de.*
- II.3.- *fuera de, lejos de.*
- II.4.- *excepto.*
- II.5.- *en vez de*
- II.6 nominalizazio gisa³¹

²⁵ Beterik dago euskara, egungo egunean bederen, horrelako (edota, gutxienez, horrela uler litekeen) hitz-joskeraz. Ugariak dira lekuzko posposizioak, eta ez dira hain gutxi denborazkoak. Adibide apur batzuk baizik ez ditugu emango, berriro ere OEHTik jasoak. Lekuzkoetan, horrela: “Tolosa aldian izan naiz uztarri batzuekin” OEH I, 682. “Etorri naz Bilborantz Algortako aldeti” OEH I, 682. “Eskuneko begiaren azpiko aldean” OEH I, 682. “Ataungo aldera hurrengo saiu” OEH I, 682. “Goasemasu Loiola aldera igesi” OEH I, 685: “Batez ere Beterri aldean” OEH I, 687. “Espainia aldean lagunak ez geldi” OEH I, 687. “Ondartza-aldera okertzen zuen uginaldiak ontzia” OEH I, 690. “Eriosuar aldegiten du apaizak Zumardi aundi aldera” OEH I, 690. “Egun artan bertan Burdeos aldera artu zun” OEH I, 90. Denborazkoetan, berri: “hamarrak aldean etorri da” OEH I, 690. “Negu alde- ra” OEH I, 691. “goizeko bostak aldean eraso zien” OEH I, 691. “ez nuan nik artorik sal- tzeke asmorik San Juan alderaiño” OEH I, 691. “Lasta-illaren azken-aldera, pagadietan usoak” OEH I, 684.

²⁶ Adibide bakarra jasotzen du OEHk, adiera horrekin: “aldea eta ifrentzua” OEH I, 692.

²⁷ Ugariak dira honelako adibideak. Esate baterako: “Gauza *zar-etik txar*-era ez dago alde andirik” OEH I, 692. “Idietan zegoen alde guztia” OEH I, 692. “Ontza gutxiren alde dute, ontziak ontziarekin” OEH I, 692. “Bere ariko guziei edo guzitsuei alde au kentzen die” OEH I, 692.

²⁸ Adibide gutxi ageri ditu OEHk, adiera honekin ere: “espíritu saintia, orfelinen althia”, edota “hilik ama handia, nik nian althia”, biak in OEH I, 693.

²⁹ Ugariak dira honelako erabileraren oihartzunak OEHn: “Ene auzoak zure kontra, eta nik zure alde yokhatzen dugu”.

³⁰ “Orra, atsekabea poztasunetik zeñen alde dagoen”.

³¹ Adibidez: “Zelaietako belarra *garbitze aldera* ematen diogu”. Alegia, ez diogu ezer kobratzen. Hark sega pasa eta sasiak hartu gabe garbi mantentzen du leku hori. Horrelakoetan, semantika aldetik garrantzitsua ez da lekua edo denbora, garbitzeko ekintza (edo ekintza horren kontrapartida) baizik. Ikus orobat: “Ardi-larrua ugari eta alferrik daukagu etxean. Inork *eramate aldera* nahi badu?” Hau da, ez dugu ezer kobratuko. Zuk hartu eta *eraman*. Edo beste hau: “Hori dirua *irabazte aldetik* (begiratuta) negozio kaxka-

III.- Interjekzio moduan³²: *fuera!*.

Hitzaren balio polisemiko handia ageri da, lehenik eta behin, sailkapen-
 taula horretan. Besteren artean “*lado, manera, grupo, ventaja, aliado, hacia, en
 vez de, lejos de, cerca de* eta *excepto*” esan nahi duen hitzak edo hitzarteak
 aparteko garapen-ahalmena izan du, bistan denez, bere bizialdi luzean.
 Garapen-ahalmen handia izan du eta ahalmen horrek, seguru asko, barreiatze
 semantiko handienetarikoa elementua bihurtu du *alde*, gure hizkuntzan.

Barreiatze semantiko hori oso zabala izanik ere, bistan da *alde* elementu-
 ak oro har, eta *alde* izenak bereziki, bi erabilera nagusi dituela: goiko zerren-
 da horretako I.1 eta I.3 puntuetan adierazitakoak konkretuki. Hots, *lado,
 zona, parte, porción* adiera batetik, eta posposizio gisakoa bestetik.

Lehenengo adiera-multzo horri (1.1. puntukoari) *alderdi-*, *parte-* edo
zati-adiera esango diogu aurrerantzean. Adiera horren azpimultzo gisa har
 daitezke, oro har, OEHren sailkapeneko I.2. (*referido a tiempo*), I.4. (*cara
 anterior o delantera*) eta I.7. (*aliado, partidario*). Txosten honen III.1. atalean
 landuko dira horiek guztiak. Bigarrenari, berriz, posposiziozko *alde*. Txosten
 honen III.2. atalean landuko dira, gaingiroki bada ere, *aldean, -ko, -ra, -tik*
 moduko posposizioak.

II.5.- *-alde* atzizkia *Orotariko Euskal Hiztegian*

Atzizkirik ez dago, ia, OEHko *alde*-ren sailkapen xehekatu horretan.
 Sarrera horretan elementu lexikal autonomoak (edota hortik gorakoak, ez
 hortik beherakoak) landu ditu hiztegitaleak. Hori horrela izanik ere,
 bada sailkapen horretan puntu bat *-alde* atzizkitik hurbil dabilena: I.5. puntua,
 “*grupo, bando; cantidad*” edo <<*Quantité, nombre*>> adierako elementu
 lexikalei buruzkoa. Ikus dezagun, hasteko, horko zenbait adibide: *gizalde, txi-
 talde, aralde*. Etorri ez datoz *alde*-ren sarrera lexikalean, aurreko hiru horiek
 bezala, baina zaku berean sartu ahal izango genituzke OEHk lekuan-lekuan
 ageri dituen *artalde, galalde, jendalde, harralde, pagalde, etxalde, uhalde* eta
 abar.

rra duzu”. Hemen *irabaztea* da muina. Honelako egiturak txosten honetantxe badira bi,
 gutxienez. “...*saiatze aldera*” 4. orrialdean II. puntuaren lehen lerroan eta 18. orrialdean
 azken paragrafoan “Goiko bigarren ekuazio... gauzak *argitze aldera*...”. Iñaki Azkunerri zor
 diot informazio hau.

³² Oso erabilia da *alde* hitzaren aldaera hau. “alde nire bistatik” modukoak hitzetik
 hortzera erabiltzen dira, egungo egunean ere, haserre-giro biziko azalpenetan.

Atzizkiak al dira hitz-amaierako *-alde* horiek? Baietz eta ezetz, bietara erantzun liteke. Segun zer definizio aukeratzen den atzizki lexikogenetikoentzat, erantzuna ere halakoa izango da. Aurrerago hitz egingo da horretaz. Gauza bat komeni zaigu, dena den, hemen azaltzea. Lexikografiazko lana da *OEH*, lehenik eta behin. Hori dela-eta, lexikologiazko kontuei iragaitzaz-edo heltzen die, ez aurrez aurre eta espezializazio mailan. Hots, lexikografia kontuak argitzeko beharrezko-edo ikusten duen neurrian, ez gehiago, lantzen du *OEHk* eratorpen-atzizkien kontua. Konkretuki, *-alde* atzizkiaren kasuan ez du elementu horretaz berariazko aipamenik egiten. Lekuan lekuko adibideak aztertuz atera behar da hortaz, inola ateratzekotan, *OEHk* gai horretaz bildurik duen informazioa. Hala egiten saiatu gara eta, aurreraxeago ikusiko denez, uzta aberatsik jaso dugu zenbaitetan.

III.- ALDERDI-, PARTE- EDO ZATI-ADIERAKO A-ALDE

Hitz-elkartezko edo eratorpenezko izenez (izen arruntez eta leku-izen propioez) hitz egingo dugu atal honetan, batetik; *alterekiko* posposizioez, bestetik. Ez bata eta ez bestea ditugu gaurko aztergaiaren ardatz. Azterkizun dugun esparrua behar bezala argitzeko behar-beharrezkoa da, ordea, atal horiek analizatzea, gaingiroki izango bada ere. Ikus ditzagun biak, hortaz, banan-banan.

III.1.- Hitz-elkartezko edo eratorpenezko A-*alde* izenak

Era honetako A-*alde* izen batzuek leku-ardatzeko tipifikatzaileak dira. Beste batzuk, berriz, denbora-ardatzekoak³³. Ikus ditzagun biak, banan-banan.

- a) **Leku-ardatzekoak:** Hiru azpimultzo ageri dira hemen, ohiko adibideen artean, nagusi: direkzionalak, bizi-ingurumenekoak eta gorputz-atalekoak. Kontura gaitzen, halere, azpi-adierazko bereizketa horiek ez dagozkiola *alde* elementuari berari, horren aurretik doan hitz-enbor edo muga-hitzari baizik.

³³ Ikusteko dago, modu-ardatzekorik ere ezin ote litekeen identifikatu.

a1) direkzionalak. Axularren garaitik ongi dokumentaturik daude direkziozko eraikuntzok: *aitzinalde*³⁴, *atzealde*³⁵, *aurrealde*³⁶, *azpi-alde*³⁷, *barrenalde*³⁸, *gainalde*³⁹, *gibelalde*⁴⁰: OEHko definizioen arabera (ikus oin-oharrak), *alde* direkzionalak “parte” edo “atal” esan nahi du lehenik eta behin. Leku osoaren, espazio fisiko eta bir-tual osoaren, parte bat seinalatzen du.

a2) bizi-ingurumenekoak: *bazterralde*⁴¹, *brankalde*⁴², *erdialde*⁴³, *ibarralde*, *itsasalde*⁴⁴, *itzalalde*⁴⁵, *mend(i)alde*⁴⁶, *mugalde*⁴⁷, *ortzalde*, *ortzialde*, *ortzealde*⁴⁸, *popalde*, *zubialde*⁴⁹.

a3) gorpuz-atalekoak: *bizkarralde*⁵⁰, *gerrialde*⁵¹, *gorputzalde*⁵², *ipur-talde*⁵³, *oinalde*⁵⁴, *paparralde*⁵⁵, *sabelalde*⁵⁶, *saihetsalde*⁵⁷,

³⁴ “parte delantera” “pena hark () eramaiten dio aitzin alde bertze penari” (OEH I, 472-3)

³⁵ “parte de atrás” “espalda, respaldo de la silla” (OEH III, 278)

³⁶ “parte delantera” “Aurrekalde ona eñ du” (OEH III, 384)

³⁷ “partie inférieure; la parte inferior”. “aren azpikaldea zulatuz betea zegoñ” (OEH III, 599).

³⁸ “1. parte de dentro; 2. parte de abajo” “Gaixtoaren konzientzia eta barren aldeak organen edo gurdiaaren arroda bezala dira” (OEH IV, 94)

³⁹ “parte de arriba, parte superior; superficie” (OEH VIII, 154).

⁴⁰ “parte trasera, espalda, trasero” (Añ., Dv., H., M. Izeta. 1985, in OEH VIII, 576).

⁴¹ “región, comarca, tierra” (OEH IV, 256).

⁴² “proa”.

⁴³ 1. “zona sombría” in G. Garate, 1988; 2. “Poniente, Occidente” in Gèze OEH IX, 729).

⁴⁴ “Galiziko itxas alde argia” NExtx LBB, 31; “gure lurbarren eta itsasaldearen irudia” MIH, 273 (dena in OEH IX, 649).

⁴⁵ “etxea itzal aldean dago” (OEH IX, 729)

⁴⁶ “Sancho Martinez de Mendalde” (1322, in OEH XII, 250).

⁴⁷ “mugaldeak ontsa zainduak dire” (Dv. in OEH XII, 498).

⁴⁸ “cielo, firmamento” (JE GH 1933; Orixe Aitorkizunak; Oxobi 1966;

⁴⁹ “côté, voisinage du pont” (Dv).

⁵⁰ “parte de la espalda, parte trasera” (OEH V, 474),

⁵¹ “cintura; zona lumbar. Ecuador. Tronco” (OEH VIII, 541).

⁵² (OEH; VIII, 772). Parte, miembro del cuerpo.

⁵³ (OEH IX, 456),

⁵⁴ “lugar donde se ponen los pies” Erkiaga, Iraizoz: “oin-aldeko oharrak ere bereak dira” MIH, 183 (OEH XIII, 3).

⁵⁵ “zona del pecho, del escote (OEH V, 474).

⁵⁶ “abdomen, tripa” (Mirande 1976 in OEH XIV, 407).

⁵⁷ “costado,” Añ., Orixe, Erkiaga, NExtx. (in OEH Xiv, 433).

b) **Denbora-ardatzekoak:** Ondotxoaz gutxiago dira honelakoak. Gehienak egun-partea edo urtaroak adierazteko erabiltzen dira: *arratsalde*⁵⁸, *gaualde*⁵⁹, *goizalde*⁶⁰, *negualde*⁶¹, *udalde*⁶²,

III.2.- *A-aldean, A-aldeko, A-aldetik, A-aldera* moduko posposizioak.

Goian eman diren *A-alde* asko, bai leku-ardatzekoak eta bai denbora-ardatzekoak, leku-denborazko deklinabide-atzizkiz jantziak etorri ohi dira maiz. Horrelakoetan nekez esan liteke, *A-alde* horiek lexema (elkartu edo eratorri) huts direnik. Posposizio-lanean ari dira, horrelakoetan, *aldean, aldeko, aldetik* edo *aldera* modukoak.

Ez da hau lekua, eta ez gara beraz bide horretan barrena abiatuko, euskal posposizioen status lexiko-gramatikal berezi hori argitzeko. Bistan da, ordea, oso kontuan hartu behar dela *alde* bidezko posposizioen ugaritasuna eta adiera-esparrua. Gramatikalari eta hiztegi-gile batek baino gehiagok *alde* elementuak batez ere leku-adiera duela esaten duenean, gauza bi ahanzten ditu: batetik, leku-denboren semantema A horrek dakarrela sarri, ez *alde* elementuak; bestetik, posposizioen izaerak ez duela lexematikaren baitako definizio handitarako aukerarik ematen. Lexematzat ematen diren adibide asko ez dira lexema huts; leku-denborazko kontestuetara mugaturik daude kasu horietan (are kasu gehienetan, OEHko adibideen azterketa hartzen bada irizpide nagusi). Lehenengo puntua (semantemarena) aurreko atalean emandako adibideez argi samar azaldua gelditu da. Bigarren puntuari heldu nahi zaio oraingoan.

Posposizioen alorrean ere posible da leku- eta denbora-ardatzekoak bereiztea, batetik⁶³, eta leku-denborazkoetan goiko hiru atalen arabera azalpena egitea, bestetik. Horrela,

⁵⁸ “Tarde, atardecer” (OEH II, 604).

⁵⁹ (OEH VIII, 429).

⁶⁰ (OEH VIII, 701) 1. amanecer, madrugada. 2. <<mañana del día>>, <<Matinée>> <<la mañana (hasta el mediodía)>> 3. oriente OEH, 701.

⁶¹ 1. “invierno”; 2. “norte” (OEH XII, 757).

⁶² (OEH XV, 642).

⁶⁴ Gogoan izan *alde* elementuarekiko posposizioez ari garela hemen, soil-soilik, eta horrexetatik zentratzen ari garela leku-denborazkoetan, moduzkoak alde batera utziz.

a) leku-ardatzekoak

a1) direkzionalak: *aitzinaldetik*⁶⁴, *atzealdean*⁶⁵, *aurrealdeko*⁶⁶, *azpialdera*⁶⁷, *barrenaldetik*⁶⁸, *gainaldera*⁶⁹, *gibelaldeko*⁷⁰

a2) bizi-ingurumenekoak: *mendi aldean*⁷¹ *zubi aldean*⁷²: *branka aldeko*⁷³, *itzal aldean*⁷⁴, *itsas aldean*⁷⁵, *ibar aldetik*⁷⁶.

a3) gorpuzt-atalekoak: *bizkar aldetik*⁷⁷, *gerrialdeko*⁷⁸, *ipurdi aldeko*⁷⁹, *oinaldean*⁸⁰, *paparraldera*⁸¹, *saihetsaldera*, *-etan*⁸²

b) denbora-ardatzekoak: Lexema hutsen kasuan bezala, leku-ardatzekoak baino ujrriago dira, kopuruz, denbora-ardatzekoak. Egon hor daude, ordea: *ikus, adibidez, gau aldera*⁸³, *goiz aldera*⁸⁴, *negu aldeko*⁸⁵, *uda aldean*⁸⁶...

⁶⁴ “Komentuko aitzinaldetik gureganatago” (OEH I, 472-3)

⁶⁵ “Yarri zuen izena orriaren atze-aldean” (OEH III, 278)

⁶⁶ “Martial ta Zernin belauniko yarri ziren aurrealdean” (OEH III, 384)

⁶⁷ “Pago tantai bat azpikaldeko gurpillak gibeletik iraultzeko” (OEH III, 599)

⁶⁸ “Goenean, erdi-erdian bat edo bi, eta barren aldean zearka errenkadak” (OEH IV, 94)

⁶⁹ “Gain-aldeko bertze adar guziak arrasetik khentzen dira” (OEH VIII, 154)

⁷⁰ “bata buru aldean eta bestea oin aldean” (OEH XIII, 153)

⁷¹ “eta zen han mendi aldean urdalde handi bat alha zenik” (Leizarraga in OEH XII, 250)

⁷² “gizakume bat zetorren atzeratxoago zubi-aldera (N Etx LBB, 52); Ikhusirik Grat zübaltian, deitzen dü khantiala (1879). (Biak in OEH XVI, 955).

⁷³ “brankaldeko erremuaren laguntasunaz” (Erkiaga in OEH V, 577)

⁷⁴ “etxea itzal aldean dago: itzal aldian ez da batere” (Soroa 1886 in OEH IX, 729)

⁷⁵ “Galileako itsas aldean zebilela” Leizarraga Mt 4, 18; “etxea itsas aldean du” Leizarraga Act 10, 6 (dena in OEH IX, 649).

⁷⁶ “ibarraldetik datozkigun zakur-zaungak” (Tomas Agirre Uzt. 1937 OEH IX, 105).

⁷⁷ “Neska batek urreratzen ziezten bizkarraldetik azaok” (OEH V, 475)

⁷⁸ “gerrialdeko orri xigortuak banaka kimatu” (OEH VIII, 541)

⁷⁹ “ipurdi aldeko galtzak urraturik” (OEH IX, 456: badirudi, horren arabera, posposizioarako *ipurtalde* ez baina *ipurdi alde* dela forma erabilia”

⁸⁰ “bata buru aldean ta bestea oin aldean” (OEH XIII, 153)

⁸¹ “Txanbrak iriki aundia du...bai bizkar aldera ta bai papar aldera” (OEH XIII, 840)

⁸² “Buruan eta saiets aldeetan sekulako joak”. “Etxearen saiats aldera beste ate bat” (OEH XIV, 433).

⁸³ “gau aldera Joakiñen biotza azken-jaikiak ematen asi zan” (NETx LBB 65 in OEH VIII, 429).

⁸⁴ “goizaldera trumoi galantak izan die” (Elexp Berg in OEH, 701); goiz aldera juten dira (...) beren txuloetara (Sor Bar 62 in OEH, 701)

⁸⁵ “Hutsa dago irla hau negualde guzian”. “Negualdean belar ondua urri dabillenean” (OEH XII, 756)

⁸⁶ “haizea ona da, udaldean batez ere” (“*udalde*”-an edo “*uda*” aldean; baina *udalde osoan?*).

Berrero diogu: hitz eratorrien erroa edo hitz elkartuen mugatzailea da leku-denborazko lexema berekin duena, ez *alde* elementua, horrelako kasu gehienetan. Adibideak argi eta zehatz mintzo dira horretaz, inoren lagungarriarik behar izan gabe. Garrantzitsua da hori, aurrerago esango direnak ongi ulertzeko. “*alde* lexemak edo atzizkiak lekua adierazten du”ela esaten denean, eta sarri entzuten da halakorik, oso gogoan izan behar da atal honetan eta aurrekoan azaldu duguna.

IV. TALDE LEXEMA

Aparteko lekua du, aztergai honetan guztian, *talde* hitzak edo lexema autonomoak. Aniztasun- edo multzo-elkarte nabariak sortzen dira sarri, batez ere bizidunekin, horrelako hitz-elkarte zahar eta berrietan: *jende-talde*, *lagun-talde*, *abere-talde*, *behi-talde*, *ikasle-talde*. Lagun askok, eta lagun ugari horiek osaturiko multzoak, eratzen du *lagun-taldea*. Azkuegandik hasita argi egon izan da hori, eta oraingo hiztegiek ere ongi adierazten dute bere aparteko izaera. Baita hitz-elkarketaz azken hogeitaz urtean eginiko azterlanek ere (Zalbide 1987, 1992). Hemen ez goaz, beraz, lehendik argi dagoena argiagotzen saiatzera.

Gauza bat esan beharra dago, ordea, goiko horren osagarri. Gaur eguneko hitz-elkarte asko, *talde* hitza mugakizun dutela eraturiko asko, ez dira multzo-elkarte. Ez, behintzat, ohiko multzo-elkarteen pare-pareko. Oro har, egungo egunean bi *talde* lexema daudela esan behar da: *talde₁* eta *talde₂*. Ohiko eran jarduten dutenei (konkretuki, goian azaldu ditugun adibideei eta horien parekoei) *talde₁* esango diegu hemen, eta jokaera berrikoei *talde₂*. Ikus dezagun jokaera berriko zenbait adibide: *antzerki-talde*, *futbol-talde*, *kirol-talde*, *adin-talde*, *lan-talde*, *odol-talde*, *presio-talde*, *zuzendaritza-talde*. Bistan da *antzerki-talde* bat ez dela *antzerki asko*, *antzerki askoren multzoa*; *adin-talde* bat ez da *adin asko*, *adin askoren multzoa*, *presio-taldea* ez da *presio asko*, *presio askoren multzoa*. Oso bestelakoak dira, konturatzen bagara, *talde₂* moduko elkarte berriok. Hori dela-eta, *talde₁* eta *talde₂* bereiztera jo ohi da, zenbait zereginetarako⁸⁷. Arakatu diren adibide guztien arabera, *talde₂*-k ez du aniztasun-adierarik berez. Multzo-adiera ere diferentea da, batean (hots, *talde₁* -ean) eta bestean (*talde₂*-an). Bistan da, ordea, era bateko edo besteko multzo-adiera dutela **A-talde** moduko elkarte guztiek. Garai bateko (eta, halako neurri batean, egungo eguneko) **A-alde** batzuen parean, multzo-adierazle dira horiek ere.

⁸⁷ Ortotipografian ere gomendatu ohi da zenbaitetan, marraz idazten dutenen artean, bien arteko bereizbiderik.

V. ANIZTASUN- EDO MULTZO-ADIERAKO A-ALDE: EGITURATZE-SAIOA

Azkueren garaitik, *Morfología Vascaren* azalpenetatik bereziki, garbi aitortua dago aparteko saila osatzen dutela eratorpenezko aniztasun- edo multzo-atzizkiek. Bere hitzetan esanik, “derivativos nominales colectivos” dira horiek. Inork ez du geroztik, dakigularik, eratorpen-atzizkion *status* beregain hori dudatan jarri. Gutxi izan dira ordea, azken laurogei urtean, beren aplikazio-lanetan Azkueren sailkapen horretaz bete-betean baliatu direnak⁸⁸. Teoria aldetik Azkueren definizioa ontzat ematea (edota ez gaitzestea), baina aplikazio praktikoetan kontuan ez izatea: hori izan da azken hamarkadotako jokabide nagusia. Oker al zebilen Azkue? Zer dio dokumentazio lexikal kontrastatuak? Zer diote erdal itzulpenek? Zer dio euskarazko eratorpen-morfologiak, Azkueren garaitik beretik hasita?

Hel diezaiogun beraz, hori baitugu gaurko aztergaiaren marko nagusia, eratorpenezko multzo- eta aniztasun-atzizkien azterketari. Hiru eratako galderak egingo ditugu horretarako, eta galdera bakoitzari aurrez aurreko erantzuna ematen saiatuko gara. Horra hiru galderak: zein dira euskarazko “derivativos nominales colectivos” direlako horiek?; zer ezaugarri semantiko eta zer harreman molde sintagmatiko dute?; zer leku dagokio *-alde* atzizkiari, marko horretan guztian? Goazen, beraz, urratsez urrats.

V.1. Zein dira euskarazko “derivativos nominales colectivos” direlakoak?

Azkueren esanean, honako atzizkiok sar litezke eratorpenezko multzo- eta aniztasun-atzizkien sailean: *-alde*, *-di*, *-(t)eria*, *-kada (-tada)*, *-egi (-tegi)* eta *-tza / -tze*⁸⁹: adibide bana emanaz, bistan da *artalde* eta *pinudi*, *gazteria* eta *eskukada*, *mahastegi* eta *dirutza* aniztasun- edo multzo-adieraz horniturik ageri direla. Bestelako multzo-atzizkirik ere azaltzen du Azkuek, iragaitzaz- edo, baina atal horretan emandakoak dira bere ustez funtsezkoak.

Geroztik ez zaio Azkueren sailkapen horri, esan bezala, aldaketa handi-handirik eragin: *-alde* atzizkiaren multzo-izaera aski alde batera utzi izan dute

⁸⁸ Biak dira egia: ontzat ematen da Azkueren sailkapena eta tipologia, oro har; baina gero, praktikan, kontu hori alde batera uzten da sarri. Oso deigarria da alde biko jokabide hori.

⁸⁹ Forma aldetik euskara batuaz erabiliago diren morfoak aukeratu dira, a organikoak berreskuratuz batean eta t epentetikoak hala dagokionean txertatuz.

bere ondokoek (inoiz ukatu gabe, halere⁹⁰), eta Azkuek beste sailen batean sartutako atzizkiren bat edo beste multzo-atzizkien ingurura hurbildu: horrela gertatu izan da, bereziki, eki-iparraldeko *-(g)oa* atzizkiarekin: abstrakzio- eta kargu- edo lanbide-atzizkitzat eman izan da sarri, baina adibideetan multzo-atzizkien erabilera-eremutik hurbil dagoela adieraziz. Bada tartean, azkenik, hildakotzat-edo emandako atzizkirik, bere esanahia partez multzo-izae-razkoetan sailkatu arren gutxitan berariaz landu denik: horrela gertatzen da, konkretuki, *-aga* atzizkiarekin⁹¹.

Multzo-adierako hitz eratorrien antzeko fenomeno ageri da, euskaraz, multzo-elkarteeekin: hots, elkartearen bigarren osagaia (mugakizuna) *talde*, *sail*, *andana*, *multzo*, *sorta*, *jende*⁹²... lexema duten elkarteeekin: *ikasle-taldea*, *arto-saila*, *hitz-andana*, *sagar-multzoa*, *liburu-sorta*, *ontzi-jendea* eta abar. Antz handia dute batzuek eta besteek, hainbat aldetatik begiratuta. Badute alderik ere, ordea. Alde nabariena, agian, *-di*, *-tza*, eta antzeko atzizkien autonomia lexikalik eza da. Aurrerantzean ez dugu, bestelako xedea dugunez gaurkoan, multzo-elkarterik berariaz landuko.

Eskuartean dugun helburua kontuan izanik, honako zortzi atzizkiok izan litezke erabilgarrienak: *-aga*, *-alde*, *-eria* (*-teria*), *-egi* (*-tegi*), *-eta* (*-keta*), *-(g)oa*, *-tza* (*-tze*) eta *-(t)zu* (*-tsu*, *-so*). Morfo bik baino gehiagok eratorpen-morfema bakarra adieraz dezakete⁹³. Horrela, esate baterako: *-oa*, *-goa* eta *-koa* morfoak eratorpen-morfema bakarraren aldaera dira. Era berean, morfo bakar batek morfema (are eratorpen-morfema) bat baino gehiago izan dezake berekin: esate baterako, *-tza* guztiak ez dira aniztasun- edo multzo-adierakoak⁹⁴. Aurrerago hitz egingo da horretaz. Orain, bidea urratzen hasteko, zortzi eratorpen-atzizkion amankomuneko ezaugarri batzuk aztertzen saiatuko gara.

⁹⁰ Are gehiago: *-egi* / *-tegi* atzizkiaren multzo-izaera ere aski alde batera utzi izan da, Azkuek geroztikako zenbait azalpenetan.

⁹¹ Badira tartean, azkenik, zeharo hildakotzat hartzen direlako edota adibide gutxi dute-lako esparru honetatik kanpora utzi ohi diren atzizki modukoak: *esate baterako -ai* (*belai*, *ibai*, *bizkai*, *aldai*, *zelai*...). Orobat hortik eratorriak: *pagaldai*, *murgialdai* moduko formak ere hor sar litezke.

⁹² Eratorpen-atzizkitzat har daiteke *-jende* hori, hala nahiago bada. Eskuartean dugun xederako berdintsu digu, nolanihi ere.

⁹³ Morfo/morfema bereizketarako, ikus Matthews, 1980, 91-4. Morfema bi edo gehiagoko morfoen analisirako ere ikus iturri hori bera.

⁹⁴ Esate baterako, *dirutza* hitzak aniztasun-adiera argia du berekin. *Alkatetza* hitzak, aldiz, ez. Oso antzeko fenomeno gertatzen da *-(g)oa* atzizkiarekin ere. Erdal hizkuntza handiei dagozkien azterketetan *abstrakzio-atzizki* esan ohi zaie, sarri, adiera horretako morfemei. Abstrakzio- eta multzo-adieren arteko harreman-bide posibleez eta bereizgarri nabariez xeheki hitz egin liteke, noski. Ez da artikulua hau, ordea, horretarako lekua.

V.2. Aniztasun- edo multzo-adierazleen ezaugarriak, adieraz eta hitz barneko joskeraz.

Bai semantika aldetik, eta bai lexema barruko konbinatoria morfematikoari dagokionez⁹⁵, badute aniztasun- eta multzo-adierazleek amankomuneko zenbait ezaugarri. Ezaugarri horiek aztertu nahi ditugu atal honetan.

V.2.1.- Ezaugarri semantikoak

Pinudi esaten den lekuan *pinu asko* esan liteke, edo *pinu-multzoa*. Hor biltzen da, funtsean, aniztasun- edo multzo-atzizkien adiera-muina. Horregatik esaten da, hain zuzen, **-di** atzizkia eta bere parekoak aniztasun- edo multzo-atzizki direla. Hori dute beren ezaugarri semantiko nagusia.

Adiera horren indarra eta gardentasuna ez da, ordea, beti bat. Aniztasun- eta multzo-adiera hutsa duten kasuetatik hasi eta multzo-izaera hori aski bazterrekoa duten kasuetara joanaz, bada esparru horretan gradazio jakina. Gradazio horretan mugitzen dira, gutxi-asko, euskal aniztasun- eta multzo-adierazle gehienak. Ikus dezagun, horretarako, behin eta berriro multzo-adiera argiko atzizkitzat hartu izan den adibide bat: **-di** atzizkia eta hortik sorturiko eratorpenak⁹⁶.

a) Aniztasun- eta multzo-adiera du, hortaz, **-di** atzizkiak. Adibiderik ez da falta, horren alde. Bistan da *pinudia* “pinu-multzoa” dela, eta *pagadia* “pago-multzoa”. Berdin *hariztia*, *gorostidia*, eta beste hainbat. Zertxobait konplikatatu egin beharko genuke gure azalpena, adibide zahar-gordeagoetara joanez, *sagardia* (*sagardoia*, *sagarduia*) eta beste zenbaitetan: *gaztainadia*, esate baterako, “gaztaina multzoa” ez baina “*gaztainondo* edo *gaztainatze* multzoa” dela esan beharko genuke, azken **-ondo** edo **-tze** horrek dakarren azterkizun osagarriarekin. Funtsaren funtsean, ordea, indarrean dago kasu horietan honako ekuazio semantiko hau:

⁹⁵ Zenbaitetik, konbinatoria morfematikoaren esparrua zabalduz, “sintagmatika lexikala” esaten dioten eraikuntzez ez naiz ari, halere, oraingoan. Bai, aldiz, aurrerago. Bien arteko mugez ikus, esate baterako, Louis Guilbert 1975.

⁹⁶ Ez du inork, dakigularik, **-di** (**-doi**, **-dui**) atzizkiaren aniztasun- eta multzo-adiera hori ukatu. Egia ere da, ordea, atzizki-moduon azterlan sendoagoen behar nabarmenean gaudela eta, langintza horretan sakondu ondoan, **-di** atzizkiak gaur-gaurkoz dugun ikusmoldea gutxi-asko berriro beharrean gerta gaitzekeela. Ez goaz hemen, inola ere, hain bide malkarrean sartzeri. Oinarri-oinarrizko ezaugarri semantikoetan zentratu nahi genuke gaurkoan. Ondotxoz asmo xumeagoa izanik ere eskuartearen, gauza bat argi uzten saiatu nahi genuke artikulu honetan: ustez adiera bakarrekoak diren eratorpen-atzizkietan ere posible dela zenbait bereizkuntza semantiko egitea.

<i>A-di</i>	=	<i>A asko, A-multzoa</i>
-------------	---	--------------------------

Horrelakoetan ez dago dudarik, *A-di* eratorpen-lexemak “A-multzoa”, “A asko” esan nahi duela. Hots, *pinuek* (pinu askok, ez pinu bakarrak eta ez bizpahiruk) osatzen dute *pinudia*, eta *pagoeak* (pago askok) *pagadia*. “Pinudi horrek zenbat balio du?” galdetzen dugunean, hortaz, *pinuen* (saltzeko prest jarritako pinuen) salmenta-prezioa zenbatekoa den jakin nahi dugu, ez pinuak dauden *lur-sailak* zenbat balio duen. Horrelakoetan, hortaz, *pinudia* diogunean “*pinu-multzoa, pinuak*” ditugu gogoan, ez “pinuak dauden (pinu asko dagoen) *lekua*”. Era berean, “pagadia bota eta haritza aldatu nahi dut” dioenean norbaitek, *pagoez* (zuhaitz-multzoaz alegia) ari da delako hori, ez pagoak dauden *leku* fisikoaz. *Pagadiak* “pago-multzoa, pago asko” esan nahi du horrelakoetan, ez “pagoak dauden *lekua*”. Beste era batera esanik, eratorpenezko aniztasun- eta multzo-atzizki hutsa da *-di*, goiko adibide horietan guztietan. Lehenik eta behin eratorpenezko aniztasun- eta multzo-atzizki dela esan ohi da, horregatik, *-di* atzizkia. Goiko ekuazio semantiko hori ongi betetzen duten *-di* atzizkiei, aniztasun- eta multzo-adierazle huts diren atzizkiei, *-di*, esango diegu hemendik aurrera.

b) Horrelakoak (*-di*-ekoak) al dira *-di* atzizkia daramaten hitz eratorri guztiak? Ez, denak ez dira horrelakoak. Eratorpen-morfo horri eutsiz, badu *-di* atzizkiak bestelako adiera berezirik: gutxi-asko berezirik, baina nolana ere diferentzia argia antzeman litekeen modukorik. Beste kategoria semantikoa osatzen dute bigarren multzo honetakoek. Ikus dezagun bigarren kategoria horren adibide praktikoa: “Arantzazura oinez joateko, Oazurtzara hoa lehenik, eta pagadian gora har ezak gero” esaten dugunean, inori ere ez diogu esan nahi Oazurtzara iritsitakoan topatuko duen lehenengo pagora hurbildu eta, besterik gabe, bere enborrean gora hasi behar duenik. “Pagoak dauden *lekuan* gora, *aldapan* gora” egiteko esan nahi dugu horrelakoetan, “pagadian gora” diogunean. Bestela esanik, *-di* atzizkiaren bestelako ñabardura semantikoa antzeman liteke honelako kasuetan: *pagoak* ez baina “pagoak dauden *lekua*, pago-multzoa dagoen *lekua*, pago-multzoak determinatzen duen *lekua*” dugu oraingoan gogoan. Aurrekoan ez bezalako ekuazio modua dago oraingoan indarrean:

<i>A-di</i>	=	<i>A asko (A-multzoa) dagoen lekua</i>
-------------	---	--

Goiko bigarren ekuazio hori ongi betetzen duten *-di* atzizkiei, gauzak argitze aldera, *-di*, esango diegu hemendik aurrera. Multzo- eta aniztasun-atzizkien bigarren saila osatzen dute honelako kasu hauek. Kasu honetako *-di* atzizkia aurrekoa bera da formaz (hots: eratorpen-morfo bera da). Esanahiari dagokionez badu, ordea, alde ohargarririk. Biek dute multzo-

-adiera⁹⁷, baina bigarrenak lekuan egiten du enfasi nagusia. Batetik besterako bereizkuntza semantikoaren kontu hori ez da *-di* atzizkiarekin gertatzen den bitxikeria nabarmen bat, atzizkien alorreko aski gertaera arrunta baizik. Askotan gertatzen da semantikazko transposizio hori. *Multzoa* esan ordez, *multzoa dagoen lekua* esaten da eratorpen-atzizkion bigarren sail honetan. Urrunagoko pausoa ematen du zenbaitek, eta “A-multzoa” ordez “A hutsa” ikusten. Hori dela-eta, *A-di* moduko eratorpenetan “A-multzoa, A *asko* dagoen *lekua*” edota soil-soilik “A dagoen *lekua*” adierazten dela esan ohi du hiztegitik eta lexikologo batek baino gehiagok, lekuan zentratuz huts-hutsik. Hots, *-di*₁-eko eta, partez, *-di*₂-ko multzo-adiera hori alde batera uzteko joera dago halakoetan. Ondorio praktikoen aldetik arrazoi du, zenbaitetan, hala diharduenak: ez beti, inola ere (lehen saileko adibideez josia dago multzo-atzizkion erabilera), baina bai hainbatetan (batez ere egungo eguneko erabilera modu nagusiari dagozkionetan). Forma zaharrei dagokienez, bistan da “pinu bat dagoen lekua” ezin izan litekeela pinudia. Ez pinu bat, ez bi eta ez hiru: aniztasun-adiera oso barruan daramate horrelako eratorpen zaharrek.

Gauza bera gertatzen al da gainerako multzo- eta aniztasun-atzizkiekin? Gauza bera gertatzen al da, demagun, *-tza / -tze* (ardantza / ardantze), *-aga* (iturriaga), *-te* (eurite) modukoekin, *-eria* (gazteria) modukoekin? Askotan bai, baina ez beti. Azken biek (hots, *-te* eta *-eria* atzizkiek) ez dute (oro har) *-di*₂-ren pareko adiera hori berekin⁹⁸. Beste zenbait kontutan ere, multzo-atzizki batzuetatik besteetara alderik badagoela ikusiko genuke, banan-banan eta xehetasun osoz arakatzeko hasi orduko. Funtsezko hainbat gauzatan bide beretik dabilta, ordea, *-di* atzizkia eta gainerako multzo- eta aniztasun-atzizkiak. Hainbat ezaugarri bere osoan eusten zaiola antzemango genuke, hartara jarritz gero. Konkretuki, beste atzizki horietan ere *-tza*₁ eta *-tza*₂, *-tzu*₁ eta *-tzu*₂, *-egi*₁ eta *-egi*₂ eta abar daudela⁹⁹ antzemango genuke. Ez da hau ordea lekua, multzo-atzizki horien guztien batera bilduzko azalpena egiteko, eta ez

⁹⁷ Horretan ez dago dudarik: *-di*₂ ere multzo adierakoa dela ohartzeko, aski da gogoan izatea pago bakarra dagoen lekuan ez zaiola pagadia esaten inoiz (ez pago bakarra eta ez, seguruena, bizpahiru pago).

⁹⁸ Aldiz, erdal (español, frantses...) hizkuntzetan bada adiera bietako adibiderik aski. Horrela gertatzen da, esate baterako, gaztelaniazko *-eria* atzizkiarekin: *caballería* “conjunto de caballos” (beraz *-eria*), da, batetik, eta *perfumería* “lugar donde hay (se vende, etc.) mucho perfume” (beraz *-eria*).

Euskal *-te*-k badu, dena den, hortik hurbil (leku-ardatzetik denbora-ardatzera hegaldatuz hurbil) dagoen esangura: *izurrite*, *gosete*, *eurite*, *lehorte*... direlakoek *izurri*, *gose*, *euri* edo *lehor ugari* *aldia* (lekua ordez) adierazten dute. Hots, ugaritasuna berekin dakarren posizionatzaile tenporala da, horrelakoetan, *-te* atzizkia.

⁹⁹ Hala daudela edota, gutxienez, halaxe interpreta litezkeela.

naiz bide horretan barrena abiatuko. Esanik bego, hala ere, **-di** atzizkiaz esandakoa baliagarria iruditzen zaidala, oro har, beste hainbat multzo-atzizkirentzat ere.

Gauza bera gertatzen al da **-alde** atzizkiarekin? Parte on batean bai, baina partez ez. Zertan bai, eta zertan ez? Horixe da, hain zuzen, txosten honen IV.3. puntuaz aztertuko dena

V.2.2.- Joskerazko ezaugarriak

Bi eratako konbinazio moldeak aztertuko ditugu hemen: sintagmatika lexikalari dagozkionak batetik, eta morfema lexikalen konbinaziozkoak bestetik.

a) Multzo-atzizkien sintagmatika: ondorio sintagmatiko argia dute aniztasun- eta multzo-adierazleek. Atzizkia da lexema horien muina edo mugakizuna, ez hitz-enborra. Ikusi berri dugun adibidera itzuliz, **-di** atzizkia da elementu mugatua, determinatua. Hori da elementu determinatua eta, beraz, aurreko hitza (*pago*, *haritz*, *pinu*...) sintagma horren determinatzailea da. Alde horretatik, honako ekuazio hau egin liteke lehen kasuan:

$$A-di_1 = Ak \text{ determinaturiko multzoa}$$

Bigarren kasuan, berriz, honako ekuazio hau aplika liteke:

$$A-di_2 = A-multzoak \text{ determinaturiko lekua}$$

-di atzizkia izenaren pareko da hortaz, batean zein bestean, kategoria gramatikalari eta sintagmatika lexikalari dagokienez.

b) Multzo-atzizkien konbinatoria. Iragaitzaz baizik ez dut gai hau landuko, txostena bera semantikan zentratua baitago. Zertxobait esatea merezi du, ordea, aniztasun- eta multzo-atzizkien konbinazio-ahalmenari buruz. Horrela, eta besteak beste,

- Nuklearrago dira multzo-atzizki batzuk, eta axalekoago besteak. Axalekoenak *-aga*, *-eta* (eta, beste maila batean, *-(t)eria*) dira, nabarmen: *itur(ri)* hitz-enborretik sortuak dira *iturtza*, *iturritza*, *iturralde*, *iturriaga* eta *iturrieta*, nork bere erabilera-eremu jakina duelarik. Zenbaitetan, horrezaz gainera, atzizkiok konbinatu egiten dira elkarren artean. Toponimian, esate baterako, *iturtza* hitzetik *iturtzaeta* ezaguna sortu da berreratorpenez. Baina alderantzizkorik ez: *iturrieta*-tik ez da *iturrietatza*-rik eratu. Era berean, *madaltza* (*madari* gehi *tza*) erator-

penetik *madaltzaga* (orain *maltzaga*) sortu da berreratorpenez, baina alderantzizkorik ez: *madariaga*-tik ez da *madariagatza*-rik eratu. Zerbait esan nahi du horrek: *-tza* (eta beste multzo-adierazle gehienak) baino ondotozoz periferikoago, axalekoago direla *-eta* atzizkia eta *-aga* atzizkia, K. Mitxelenak aspaldi ohartarazi zuenez. Esplikazio historikokronologikoa izan liteke, funtsean, horren oinarrian dagoena¹⁰⁰. Beti ez da, ordea, horrela izaten: *-tza* eta *-tzu* atzizkien kasuan, esate baterako, ez dago hain konbinatoria-arau argirik: *sagartzazu* modukoetan *-(t)zu* da periferikoa, axalekoa¹⁰¹; aldiz, *abartzuza* modukoetan *-(t)za*. Are gehiago (eta orain arte esandakoa baino garrantzitsuago izan liteke hori): atzizki batzuek ez dute, itxuraz, bestelako multzo-atzizkiekin konbinatzen¹⁰². Hala gertatzen da, bereziki, gaurkoan aztergai dugun *A-alde* eratorpen edo elkarte zaharrekin.

- Erabilera-eremu gehienetara¹⁰³ zabaldurik daude aniztasun- edo multzo-atzizki batzuek, eta eremu gutxitara edo bakarrera mugaturik daude beste zenbait. Eremu askotara zabaldurik daude, esate baterako, *-alde* eta *-tza* atzizkiak. Ia eremu bakarrean ageri da aldiz¹⁰⁴, itxuraz, *-di* (*-doi*, *-dui*) atzizkia. Egunen batean, multzo-atzizkien konparazio-taula prestatzen denean, argi ikusi ahal izango da irizpide horren arabera atzizki batzuek eta besteek beren artean duten diferentzia eta antzekotasuna zenbatekoa den.

V.3. Zer leku dagokio *alde*-ri, marko horretan?

Aniztasun- eta multzo-atzizkiez esan dugun zenbait gauza zuzen-zuzen aplikatu liteke *alde* elementuaren (are, *-alde* atzizkiaren) kasuan. Beti, ordea, ez. Zer du *alde*-k, gainerakoen pareko? Zer du berezi? Bi galdera horiei erantzun nahi zaie, hurrengo punturako bidea zabaltzeaz gainera, honako atal honetan. Morfema horren azpi-adierak analizatuko dira horretarako, batetik. Bere erabilera-eremu nagusiak aztertuko, bestetik. Goazen puntuz puntu.

¹⁰⁰ Egon ere, kasu konkretu honetan, motibo horixe dagoela uste dut.

¹⁰¹ Ez da erraza, horrelako adibide asko topatzea. Ez da erraza, gainera, topatutako adibide posibleak besterik gabe ontzat ematea ere: *arantzazu*.

¹⁰² *-(t)eria* multzo-atzizkiak (*gazteria* etab) ez du, dakigularik, beste multzo-atzizkiekin konbinatzen. Motiboa ez dago niretzat argi. Azken ordukoa izateaz gainera berreratorpenaren beharrik ez duen ezarpen-eremu mugatukoa delako?

¹⁰³ Erabilera-eremuaz zer esan nahi den jakiteko, ikus txosten honetako V.3.2 atala.

¹⁰⁴ Baina ikus, dena dela, aurrerago (V.3.2 atalean) atzizki horren fitonimia-izaeraz esaten dena.

V.3.1.-Lehen eta oraingo -alde morfemaren azpi-adierak

Aniztasun- eta multzo-adierazle garbia izanik ere hainbatetan, ikusi berria dugun *-di* atzizkiak bezala azpi-adiera bat baino gehiago du *-alde* atzizkiak edo morfema lexiko-sortzaileak. Multzo-adiera nagusi horren baitan azpi-adiera jakinak ditu, batetik, eta multzo-adierarik gabe ageri da zenbaitetan, bestetik. Aurreko puntuan *-di* atzizkia aztertu denean, bi azpi-adiera berezi dituela ikusi da: multzo-adiera hutsa batetik (*-di*₁), eta multzo-adieratik eratorritako leku-adiera (multzo hori dagoen, multzo horrek okupatzen duen... *lekua*) bestetik (*-di*₂).

Nola dira kontuak *-alde* atzizkiarekin, *-alde* morfema lexiko-sortzailearekin? Azpi-adiera bi al ditu *-alde* atzizkiak ere? Ez: azpi-adiera bi baino gehiago ditu *-alde* atzizkiak. OEHko eta AVko adibideak oparo aztertu ondoren, eta adibide berriekiko kontraste-lanerako AA erabilita, lau azpi-adiera antzematen zaizkio *-alde* atzizkiari: hiru azpi-adiera zahar edo ohiko, batetik, eta laugarren azpi-adiera, ondotoz berriagoa, bestetik. Kasu honetan ere posible da, *-di* morfemarekin egin den bezala, azpi-adiera nagusien oinarritzko ekuazioak ematea. Konkretuki, ondoko ekuazio moduen bidez defini litezke, nire ustez, *-alde*-ren lau azpi-adiera horiek.

a) Lehen adiera (*-alde*₁)

<i>A-alde</i> ₁	=	<i>A asko, A-multzoa</i>
----------------------------	---	--------------------------

Goiko adibidearekin konparatuz, *-di*₁ atzizkiaren pare-parekoa da, semantikari dagokionez, *-alde*₁. Beste era batera esanik, Ak determinaturiko *multzoa* adierazten du *-alde*₁ morfemak. Azalpen-saio teorikoei dagokienez, atzizkiaren jatorritzko adiera *-alde*₁ hori dela esan izan da inoiz¹⁰⁵. Laster ikusiko dugunez, *alde*₁ adiera nahiko ugaria da *A-alde* hitzaren enborra biziduna denean (*gizalde*, *jendalde*, *haurralde*, *urdalde*, *artalde*, *ahuntzalde*...). Diskutigarriagoa da bere ugaritasuna, aldiz, bestelako esparru semantikoetan. Halakoetan ere ez da, ordea, adibiderik falta¹⁰⁶. Aurreraxeago helduko diogu gai horri.

¹⁰⁵ Gogoratu R. M. Azkuek esana: “**Originariamente** nombre substantivo, <<grupo, rebaño>>, que en su evolución a la categoría de sufijo y al retrotraerse a su primitiva categoría ha quedado convertido en *talde*”(bi hitzak nik neuk belztuak).

¹⁰⁶ *Aralde* hitzak aparteko trataera behar luke, alde horretatik.

b) Bigarren adiera (-alde₂)

A-*alde*₂ = A *asko*, A-*multzoa* dagoen (duen...) *lekua*

Goiko adibidearekin konparatuz, gauza bat dago argi: -*di*₂ atzizkiaren pare-parekoa dela -*alde*₂. Beste ere batera esanik, A-*multzoak* determinaturiko *lekua* adierazten du -*alde*₂ atzizkiak. Atzizki hori ere ugaria da, aniztasun- edo multzo-adierako hitz eratorrietan.

Fitonimoetan, bereziki, azpi-adiera horixe da espezialista askorentzat ugariena¹⁰⁷. Multzo horretan sar daitezke, horren arabera, *pagalde*, *gaztainalde*, *gorostialde*, *lizarralde* eta *larralde* moduko adibide praktiko gehienak. Azpi-adiera horrek ez du zergatik fitonimoetara mugatua egon, halere. Aurrerago ikusiko dugu hurbilagotik zenbait adibide, azken irizpide horren bermagarri.

Garrantzitsua da gogoan izatea, hitz batek (*pagalde*, *lizarralde*...) ez duela nahi eta nahi ez azpi-adiera batekoa edo bestekoa izan beharrik: kasu batzuetan azpi-adiera batekin joka dezake hitz horrek eta hurrengo batean bestearekin. Gorago ikusi dugunez, *pagadi* diogunean *pagadi*₁ dugu batzuetan aipagai, eta *pagadi*₂ besteetan. Sarrera lexikal, lexema edo hitz bakarra da *pagadi* (ikus OEH, XIII: 811-2). Hitz bakarra izanik ere azpi-adiera bi ditu, gorago ikusi dugunez: *di*₁ eta *di*₂. Testuinguruak argitzen digu, gehienetan, zein azpi-adiera dugun une horretan kontuan hartzekoa.

Halatsu gertatzen da hitz-bukaeran, nire ustez, -*alde* morfema lexiko-sortzailea daramaten eratorpenekin ere. Oso litekeena da, aurrerago emango diren datuen argitan, *alde*₂ modukotzat ematen dugun hainbat eratorpen *alde*₁ modukoak ere izatea. Litekeena da gaur hala izatea edota, gaur hala ez balitz ere (eta hori ez dago frogatua), behinola hala jokatu izana. Funtsezkoa da puntu hori, toponimian eta ikerketan ari direnentzat bereziki¹⁰⁸.

Bukaeran -*aga* edo -*eta* daramaten aniztasun- edo multzo-hitza zahar askoren kasuan ere antzeko fenomeno gertatu dela pentsa liteke: *larrainaga*

¹⁰⁷ Besterik da, aldiz, euskal fitonimoetako -*alde*-ren adiera *alde*₂ modukoa ote den beti. Aurrerago helduko diogu gai horri.

¹⁰⁸ Dokumentazio zabal eta kontrastatua falta zaigu, oro har, hipotesi hori zeharo frogatzeko edo gaitzesteko. Bien bitartean, hipotesitik harantzago ezin pasa gaitzke puntu horretan. Aurrerago jardungo dugu hipotesi mailako azterkizun horietaz, *iturralde* adibideari heltzean.

edo *larraineta* modukoetan argia dirudi jatorrizko aniztasun-adierak. Argia dirudi kasuan kasuko deklinabide-atzizkiak gogoan izanik, eta argia exokomparazioz, erdal *Las (H)eras* deitura kasualitate huts kontsideratu nahi ez bada behintzat. Gaur egun bistan da, nolana ere, “ha ido a las eras” esaten denean leku bat dugula gogoan: ezer egotekotan *-aga₂* edo *-eta₂* baten gisako azpi-adiera legoke hor ere, hortaz¹⁰⁹.

c) Hirugarren adiera (*-alde₃*)

<i>A-alde₃</i> = Ak determinaturiko B-multzoa
--

Esplizituki ez dut inon *-alde₃* horrela definitua ikusi. Ez da erraza, gainera, *alde₃*-ko adibideak berehala bilatzea. Lehendik halako sistematizaziorik egin gabe dagoenez, hitzak hiztegieta banan-banan arakatuz jardun behar izan da horretarako. Hartan saiatu naizelarik, hiztegieta (kasu honetan, OEHko) definizioek edo azalpen osagarriek hartarako bide ematen dutela iruditu izan zait eta horregatik, azterlan enpiriko zabalagoaren premian badago ere kontua, berariaz aipatuko da hemen *-alde₃* azpi-adiera¹¹⁰.

Sei adibide emango dira hemen, OEHko arakatzela horren emari:

c1) *artalde*. OEHko bigarren *artalde*-az ari gara hemen (hots: *arto*-tik datorren *artalde*-az, ez *ardi*-tik datorrenaz). Bigarren *artalde* horrezaz ari delarik, honako definizio hau ematen du *Orotariko Euskal Hiztegiak* (OEH, II, 716): “*conjunto de los campos sembrados de maiz*”(beltxa nirea). *Multzo* batez ari da beraz, esplizituki, atzizkia eratorpeneko mugatzailea (lexema edo, behialako terminologian, hitz-enborra) *arto* delarik.

c2) *galalde*. Sarrera lexikal honetaz ari delarik, aurrekoaren bide beretik doan definizioa ematen du OEHk (VIII, 243): “*conjunto de campos donde se ha sembrado trigo y cereales*” (oraingoan ere, beltxa nirea).

¹⁰⁹ Bada horren alde letorkeen definizio konkreturik, OEHn bertan. Esate baterako, *osinaga hitza* honela definitzen du Larramendik (ikus OEH, 676): <<los parajes profundos y frecuentes del río>>. Antzera H << Lieu où les gouffres, les tourbillons, les précipices sont fréquents>>. Beraz, “lugar frecuente”. Hots, aniztasuneko *-alde₂* atzizkiaren pareko *-aga₂* adibidetzat har litekeena.

¹¹⁰ Azterlan hori ez da hain bideragaitza, OEHren trataera informatizatuaz baliatu ahal izanez gero. Eskuz eta haztamuz egindako saioa da hemengo, eta konprobazio zehatzago baten beharrean dago beraz.

Multzo batez ari da hortaz, hemen ere, *-alde* atzizkia. Aurrekoan *arto* bezala, *gari* da oraingoan hitz-enborra edo lexema. Argiago esanik, *gari* hitzaren eratorpenezko aldaera ezaguna.

Kontura gaitezen, goiko bi adibideotan ez dela (aurreko guztietan bezala) *A-multzoa* aipatzen, *A*-k determinaturiko *B-multzoa* baizik: OEHko definizioaren arabera *artalde* ez da arto-multzoa, eta *galalde* ez da gari-multzoa, artoa edo garia ematen duen *lur-saila* edo “conjunto de campos” baizik¹¹¹. Xehetasunak xehetasun, eta ez dira xehetasun tipiak, “conjunto de campos” hori *multzo*-adierakoa da, argi eta garbi.

- c3) Bada beste adibiderik ere OEHn, esplikazio korapilotsuagoa eskatu arren *-alde*₃-ren erakusle izan litekeenik. Lehenengo adibide osagarria, konkretuki, *elizalde* da. Hona OEHk zer dioen: batetik <<cercanías de la iglesia; lugar próximo a la iglesia (generalmente en casos locales de declinación)>>; bestetik, berriz, <<barrio de la iglesia, parroquia>>.

OEHk lehen esplikazio moduan emandako <<cercanía>> eta <<proximidad>> horiek posposizio huts dira adibide praktiko askotan, agian gehienetan¹¹². Besteetan, alderdi- edo parte-izen arrunt: hots, gorago (III.1 puntuan, a2) atalean) aztertu ditugun modukoak. OEHren bigarren esplikazioa, aldiz, *-alde*₃-ren adibide paradigmakoa dugu. Elizak (eliza bakar batek seguruenik, ez elizek edo eliza askok) etxe-multzo edo populazio jakin bat determinatu (nukleatu) du menderik mende, eta eliza horrek determinaturiko etxe-

¹¹¹ Egia da ordea, guztiarekin ere, *arto asko*, *gari asko* adiera ere nolabait bizirik dagoela batean zein bestean: arto asko emango du (urtea oso txarra ez bada) *artaldeak*, eta gari asko *galaldeak*.

¹¹² Kontuz ibili behar da *-alde*₂ edo *-alde*₃ itxurako “eratorpen” askorekin. Horiatariko asko ez dira, izan ere, ez *-alde*₂ ez *-alde*₃ eta ez beste inolako *-alde* morfema lexikogenetiko, gorago (III.2 puntuan) aztertu diren posposizio hutsak baizik. Hiztegitan, Azkuegandik hasi eta OEHraino, nahaste handi samarra ageri da puntu horretan. Horrela, *alde* elementuaz ari delarik honako adibideok ematen ditu OEHk (VI: 579): “Leaburuko elizan ta *elizaldean*” (A Ardi 128); “*Eliz-aldera* inguratu (Muj PAm 65)”; “*Eleiz aldera* dijua (Alz Ram, 47)”. Beste horrenbeste gertatzen da beste alde dbatzuekin ere: “Ibai aldera joan giñean aita ta biok” (Osk Kurl 124 in OEH, xx103); “Ithurri alderat badoa” (Ox 198); “Bazekiten iturri-aldera egiten” (N Etx Antz 152). Posposizioak dira horiek, ez eratorpenezko lexema hutsak, eta aparteko trataera zor zaie hortaz. Dugun xedea kontuan izanik alde batera utz liteke, beraz, *-alde* atzizkiko zenbait sarrera lexikaletan OEHk dakarren leku-adiera hori.

multzoari edo populazioari (hots: parrokiari)¹¹³ *elizaldea* (gaztelaniaz *anteinglesia*) deritzo. >>. Bigarren kasu horren adibide moduan, honako hau ematen du OEHk: “Nolako *elizalde*, alako abade” <<Qual la anteiglesia (=parroquia), tal el abad>>(OEH, VI: 579; RIs 60).

Ba al da adibide gehiago, *-alde*, moduan interpreta litekeenik? Bai: ondoko hiru adibideok, konkretuki, *elizalde*-ren sail berekoak dira ene ustez. *Etxalde*, *bordalde* eta *olalde*.

Sei adibide xume eta ez oso ezagun lagungarri ahula (ahulegia) direla esan dezake hainbatek, azpi-adiera bati bere lekua aitortzeko. Arrazoi du halakok, parte on batez. Ez erabat, ordea. OEHren azterketa exhaustiboa egin arte ezin da esan, hasteko, *-alde*, moduko hitz eratorriak asko ala gutxi diren: azterketa egin ondoren, ez horren aurretik, juzkatu beharko da azpi-adiera honen hedadura eta pisua zenbatekoa (izana) den. Bitartean, egon hor daude adibideak, iturri seguruak dira itxuraz eta dauden-daudenean aintzakotzat hartzea da bide zuhurra, ez gutxi direlakoan ez ikusiarena gitea¹¹⁴.

d) Laugarren adiera (*-alde*,)

A-alde, = *A-lekua*, Ak determinaturiko *lekua*

Aurrekoen (batez ere *-alde*-ren) deribazio modernoa da, itxuraz, laugarren azpi-adiera hau. Modernoa eta ugaria, ohiko hizkera molde arruntean.

¹¹³ Maria Moliner-en hiztegiaren arabera, Galiziako bereizgarria alde batera utzita lau adiera ditu *parroquia* hitzak gaztelaniaz. Ondoko lau adiera hauek, konkretuki: 1) iglesia que tiene a su cargo administrar los sacramentos a los fieles que habitan en determinado territorio o distrito. 2) Feligresía. El territorio, los fieles o ambas cosas juntas de cada parroquia. 3) Clero de una parroquia. 4) Clientela. Garbi dago lau adieretatik hiruk multzo-adiera dutela berekin, partez edo osoz. Laugarrenak (zerrendako lehenak), aldiz, eraikin- edo leku-adiera jakina du. Zein adiera den zaharrago, eta zein berriago, on litzateke jakitea. Jatorrizko adier(ar)en bila hasten bagara, horra Joan Corominas-ek bere hiztegian (1987: 442) zer dioen: “Parroquia: tomado del latín tardío *parochia*, y éste del gr. Paroikía “avecindamiento”, derivado de pároikos “vecino”. Lekuak baino areago *auzo-multzo* adierak dirudi beraz, etimologia aldetik, gailen.

¹¹⁴ *elizalde* aztertzen denean, badago motiborik dudatzeko *ugalde* edo *uralde*, *la(t)salde* etab. ez ote diren sail berekoak.

Hau da askogatik, *-alde*₂-ren ondoan, gaur egun gure artean bizienik dagoen adiera. Hau da, era berean, betiko *-alde* atzizkiak leku-adierakotzat hartzera bultzatzen gaituena maiz, Azkueren garaitik esan izan dena alde batera utziz. Horrelakoak dira, esate baterako, puntu kardinalak (*iparralde*, *ekialde*, *hegoalde*, *mendebalde*) eta hainbat posizio-adierazle: *kostalde*, *industrialde*, *zonalde*, *erdialde*¹¹⁵, *merinalde*¹¹⁶, eta abar. Multzo honetan sartzekoa gerta liteke, orobat, *orrialde*¹¹⁷.

Labur bilduz

Oinarriko perpaus-eskemaren ardatzera mugatuz, lau azpi-adiera antzematen dira (*-alde* elementuaren baitan, eta bere mugatzaile-mugakizun sekuentzia honela eman liteke:

<i>A-alde</i> ₁	=	Ak determinaturiko <i>aniztasuna</i> edo <i>multzoa</i>
<i>A-alde</i> ₂	=	<i>A askok</i> , <i>A-multzoak</i> determinaturiko <i>lekua</i>
<i>A-alde</i> ₃	=	Ak determinaturiko <i>B-multzoa</i>
<i>A-alde</i> ₄	=	<i>A-lekua</i> , Ak determinaturiko <i>lekua</i>

Lau kasuetatik hiru, lehenengo hirurak hain zuzen, aniztasun- edo multzo-adierazleak dira. Laugarren kasua berriagoa da itxuraz eta, ohiko zati- edo parte-elkarteak eta lexiko-sorkuntzaren alorretik kanpora aztertzeak diren posposizioak alde batera uzten badira, aniztasun- edo multzo-adierarik gabea da berez: egia da *industrialde* kasuan *industria asko*, *industria-multzoa* interpreta litekeela, baina ez da hori joera nagusia: *orrialdean* ez dago *orri asko*, *zonaldean* ez dago *zona asko*, *erdialdean* ez dago *erdi asko* eta *merinaldean* ez dago *merio asko*.

Azkueren sekuentzia kronologikoari eutsiz, eta *OEHn* zein *AVn* aurkitu ditugun kasuak banan-banan aztertuz, honako esplikazioa ikusten zaie *-alde* adierazlea duten hitzei: *-alde*₁-en zabalkuntza semantikoa da *-alde*₂. Adiera horien deribazio edo aparteko eramoldea da, bestalde, *-alde*₃. Apartekoa eta,

¹¹⁵ Posposiziozko kasu argiak alde batera uzten badira XX. mendekoa (Yon Etxaiderena) da *OEHn*, itxuraz, horrelako lehen adibidea (*OEH*, VI: 812).

¹¹⁶ Ikus, adibidez, *Adorez Zazpi* 1996: 480.

¹¹⁷ Ikus *OEH*, XIII: 629-30. XIX. Mende-amaieratik aurrera ageri da *orrialde* hitza hantzen (batez ere hemen, hegoaldean) ugari.

hainbatean, azken ordukoa dugu, aitzitik, *alde*. Hirugarren azpi-adierako sei adibide horiek gutxiegi direla edo duda-mudazkoak direla irudituko balitzαιο inori, beti legoke modua sei adibide horiek *alde*₁-en edo *alde*₂-ren azpimultzotzat hartzeko. Lau azpi-adiera ordeztu hiru izango genituzke, baina batez besteko panorama ez litzateke asko aldatuko. Lehenengo bi kasuek aniztasun- edo multzo-adierazle izaten jarraituko lukete (*di*₁ eta *di*₂-ren pare-pareko adierakoak, hain zuzen), eta azken kasuak (leku-adiera hutsekoak) berria edo berri-berria izaten jarraituko luke.

Labur bilduz: multzo- eta aniztasun-adierak barne-bereizkuntza nabariak dituela azaldu nahi izan da atal honetan. Erabilitako corpusa xehekiro aztertzen saiatu ondoren, adibide gehien-gehienak hiru azpi-atal diferentetan koka litezkeela konprobatu da. Ikusmolde horren haritik definitu dira, hain zuzen, *-alde*₁, *-alde*₂ eta *-alde*₃ adiera-moldeak. Corpus ia osoari azken orduko erabilera moduak gehitu zaizkionean, *alde* atzizkia erantsi behar izan zaio.

Ñabardura xeheak, kasik hutsalak eta hainbatean diskutigarriak, irudituko zaizkio bereizkuntza horiek zenbaiti. Bistan da semantikaren alorra oso dela irristakorra, eta kasu hau ezin da arau nagusi horretatik alden. Bere ahuldade guztiakin ere, zatiketa hirukoitz/laukoitz hori gure kontuak argitzeko lagungarri gerta litekeela dirudi.

Bere aplikazio-esparruak ez du, gainera, zergatik etxean gelditu. Europako zenbait hizkuntzarekin, auzo-hizkuntza erromaniko nagusiekin eta hizkuntza germanikoekin besteak beste, tradiziozko zatiketa lauhoitz horren konparazio-gunerik ezartzea ez da erabat ezinezkoa. Goraxeago, *-eria* atzizkiak jardutean, gaztelaniaz *-eria*₁ eta *-eria*₂ artean erraz bereiz litekeela ikusi dugu. Ez litzateke hain zaila, hartarako denbora izanez gero, hortik aurrera ere egitea¹¹⁸. Gauza bat dago, nolana ere, alor honetan argi: *-alde* atzizkiari leku-adiera bakar zurruna emanez ezin da euskal hitz (batez ere ohiko hitz-al-

¹¹⁸ Aski da Maria Molinerrera joatea, *-eria* atzizkiari gaztelaniaz ere barne-adiera jakinak dagozkiola antzemateko. Horrela, eta bere hitzetan esanik, “*-eria*: sufijo equivalente a *-ía* con que se forman nombres abstractos, de abundancia, cualidad, conjunto o lugar donde esta se hace o se vende una cosa” Alde handiak baditu ere zenbait aldetatik (batez ere *-ero* modukoetatik sortua delako erdal *-eria* hori) antzeko ezaugarriak ere nabarmenak dira oso. “Nombres de *abundancia*, cualidad, *conjunto* o *lugar*” dira horiek. Kualitate kontuak alde batera utziz, egunen batean *-tza* eta *-(g)oa* aztertzen ditugunerako, zaila da elkarren artean paralelismo handiagorik bilatzea.

txorreko eta toponimia zaharreko euskal hitz) askoren esplikazioan oso aurrera egin. Leku-adierakotzat hartzen diren *alde* bukaerako hitz askotan leku ez baina alderdi-, zati- edo parte-adiera du, berez, *alde* horrek. Hori edo, are nabarmenago, posposiziozko ñabardura erantsia. Horrezaz gainera, aniztasun- edo multzo-adiera dute aspaldiko eratorpen gehienek, multzo-izaera hori aski diferentea izan litekeelarik. Bakoitzari berea zor zaio, horretan ere. Atzizkiaren multzokarizko azpi-adiera horiek kontuan hartzea mesedegarri da, horregatik, errealitate bakoitzaren ezagutza xeheagoa eskuratu ahal izateko.

V.3.2.- *-alde atzizkiaren erabilera-eremuak*

Zer erabilera-eremu ditu, nagusiki, *-alde* atzizkiak? Zein ageri dira ohiko hitz-altxorrean eta aspaldi bateko toponimian? Zein ageri dira, aldiz, lexikoberrikuntzaren ildotik azken mende t'erdian eratu diren neologietan edota zabalkuntza semantikoetan? Errazenetik hasiko gara: *OEHk* (ohiko hitz-altxorri dagokionez) eta *AVk* (toponimo zaharretarako) biltzen duten *corpus* tradizionalen oinarrituko gara, eta horietatik abiatuz aniztasun- eta multzo-adierako *-alde* atzizkiaren ohiko erabilera-eremu semantiko nagusiak egituratu eta banan-banan azaltzen saiatuko¹¹⁹. Bere pareko atzizki batzuen aipamen xumean oinarrituko gara, azterketa horri ekiteko: *-di*, *-te* eta *-tza* atzizkietan hain zuzen.

Gorago ikusi dugunez, landare-eremuan erabiltzen da *-di* atzizkia, ia huts-hutsik¹²⁰. *-te* eratorpen-atzizkiak, berriz, aldi- edo aro-adiera du gehienatan berekin¹²¹: *lehorte*, *elurte*, *eurite*, *urte*; *gosete*, *izurrite*, *gerrate*. Ondotxo erabilera-eremu zabalagoa du, bestalde, *-tza* atzizkiak: aniztasun- eta multzo-adierazleei dagokionez landare-izenetan ageri da batetik (*artatza*, *lizartza*, *otatza*, *belartza*), mendi-haran eta lurrazal-izenetan bestetik (*aibertza*, *gaintza*, *harrizta*, *legartza*, *hondartza*, *hareatza*), eraikin-izenetan hurrena

¹¹⁹ Aparte tratatuko ditugu, hortaz, neologietako alde atzizkidun hitzak eta beren erabilera-eremuak.

¹²⁰ Inoiz esan izan dena, *-di* atzizkiak fitonimoetarako bakarrik balio duela, ez da egia osoa: ez orain (*Euskaltzaindi*, *araudi* eta *gaztedi* moduko en eginez) eta ez lehen: *Alberdi* (<*Harbeldi*) eman izan da erabilera-eremu zabalago horren lekuko, eta Ubillosen-eta *umedi* modukoak alde batera utziaz ere ez da agian bakarra. Gezur handia ere ez da ordea, adibide konkretuei dagokionez, landare-esparruko espezializazio kontu hori.

¹²¹ Hots, denbora-aldia edo garaia adierazten du batetik, eta eguraldia bestetik.

(*etxetza, igaratza, olatza*¹²²: *erretolatza, betolatza, arabaolatza, eziolatza, olatzagutia*) eta orotarikoetan azkenik: *dirutza*¹²³.

Zer-nolako erabilera-eremuetan ageri da multzo- eta aniztasun-adierako *-alde* atzizkia? Ondoko sei eremuotan ageri dira, normalean, *-alde* bukaera duten multzo- edo aniztasun-adierako hitz eratorri gehienak: orotarikoetan; bizidunen artean (gizaki eta abere); fitonimoetan (landaretza); mendi-, haran- eta lurrazal-izenetan; hidronimoetan eta, azkenik, gizakiak eginiko eraikinetan. Ikus ditzagun seiak, zenbait adibideren laguntzaz. Esan bezala, adibide gehienen iturria Mitxelenaen *Apellidos Vascos* da batetik, eta *Orotariko Euskal Hiztegia* bestetik.

a) orotarikoetan:

Zenbait adibide: *zaialde, hirinalde (hariñalde), bibi-alde, mahats-alde, bertso-alde, zorralde*

b) bizidunen artean (gizaki eta abere):

– Gizakietan: *gizalde, jendalde, lagunalde, aingerualde, fraidealde, fededun-alde, haur-alde,*
– Animalietan: *artalde, behialde, ahuntzalde, urdalde, txerrialde, antzualde (borregada), txit(o)alde,*

c) fitonimoetan (landaretza-azalpena):

Zenbait adibide: *artalde (arto-tik, ez ardi-tik edo arte-tik), galalde (gari-tik), gaztainalde, gorostialde, larralde, lizarralde, pagalde, sagaralde eta zumalde.*

d) mendi-, haran- eta lurrazal-izenetan:

Eratorpen horien enbor-hitz nagusiak *mendi, haran, gailur, haitz, harri, legar* eta *are(n)a* ditugu. Hona zenbait adibide: (*h*)aitzalde,

¹²² Baina ez, eta kontuan hartzekoa da hori ere, *bordatza, saroitza, salatza*. Hipotesizko *kortatza*-k ba ote du loturarik *kortaxa, kortaja(rena)*-rekin?

¹²³ Horrezaz gainera ugaria da atzizki hori, ezaguna denez, abstrakzio-adierazleetan ere: *agintaritza, alkatetza, erretoretza, artisautza, nekazaritza, morrontza; laguntza, bizitza...* Abstrakzio-adierarekin loturik daude, ingelesez, Marchandek “state, rank, order, condition, character” atalean sartzen dituen *-hood* modukoak (1960: 232), *-ness* atalekoak (1960: 271) edota *-ship* alorrekoak (1960: 281). Ikus orobat Tietze o. A., 1974. Antzeko parekotasunak bila litezke gaztelaniaz (Moliner: 1982), frantsesez (Wandruszka: 1976), alemanez (Fleischer: 1975) eta abar.

(*h*)arralde, mendialde, (*h*)arantalde (cf. *haranaga*), gailurralde, arenalde (cf. *hareatza* eta *arenaza*), legarralde, aialde eta harrialde.

e) hidronimoetan:

Zenbait adibide: *uhalde* (*ugalde*,...), *la(t)salde*, *errekalde*, *iturralde*, *osinalde*, *urbialde* (cf. *urbietea*). Ikusten denez, eratorpen horien hitz-erro nagusiak *ur* (*uh-*, *ug-*,), *itur*, *lats*, *erreka* eta *osin* dira.

f) eraikinetan

Kasu honetan *etxe*, *ola*, *borda*, *eihera*, *errota*, *labe* eta *zubi* ditugu eratorpen horien hitz-erro posibleak¹²⁴. Hona zenbait adibide: *etxalde* (*etxalte*), *olalde*, *bordalde* (*bordalte*), *eiberalde* (*eiberalte*), *errotalde* eta *labalde*¹²⁵.

Berrogeita hamar adibide inguru badira zerbait, atzizki jakin bati kopuru aldetik bere atzizki-*statusa* aitortzeko. Kopuru hori txikia dela esango bagenu, euskarak ia atzizkirik ez duela ondorioztatu beharko genuke¹²⁶. Ez dirudi ondorio zuhurra. Demagun, beraz, segurutzat har litekeela atzizki hau, kopuruaren aldetik bederen.

Ez da kopuru kontua, ordea, *-alde* atzizkiari aniztasun- eta multzo-atzizkiaren *statusa* aitortzeko orduan hainbatetan ageri ohi den eragozpen nagusia. Besterik izan ohi da, aitzitik, duda nagusia: noraino eman liteke frogatutzat, aniztasun- edo multzo-adierako hitz eratorriak (edo elkartuak) direnik *-alde* bukaerako horiek? Hori da, dudarik gabe, gaurko argudio-bide osoaren behaztopa-harri nagusia. Gatozen beraz, besterik gabe, aldeko frogantzak eta kontrako argudioak aurrez aurre haztatzen.

¹²⁴ Adierazgarria da, alde horretatik, *sala* eta *korta* ez direla zerrenda horretan ageri: *salalde*, *salarte*, *salagibel*, *salaondo*, *salaurre*; *kortalde*, *kortarte*, *kortagibel*, *kortaondo*, *kortaurre* eta antzekoak ez dirudi inon ageri direnik: ez maiz asko, behintzat. *Salaberri*, *kortabarri* eta *salazar*, *kortazar* modukoak besterik dira, jakina. Baluke bereizkuntza horrek ondorio kronologiko eta soziohistoriko argigarririk. Orain ez gara xehetasun horiek aztertzen ari, ordea, eta beude hortaz bere horretan.

¹²⁵ Azken bi kasu hauek dudazkoak iruditzen zaizkit. Litekeena da leku-ardatzeko alderdi-, zati- edo parte-elkarteen sailekoak izatea. Azterkizun gelditzen da puntu hori.

¹²⁶ Aditzak sortzeko *-tu*, izaera abstraktuak sortzeko *-tasun* (*-keria*), ekintza adierazteko (*keta*, *kuntza*, *era* edo *te*) eta adjektiboetarako *-kor*, *-koi* eta *-ti* izan ezik, gutxi dira *alde* hori baino dokumentatuagoak. Hori lehenari so. Azken ordukoetan, orobat, aurreko horiez aparte gutxi dira *-alde*₄ bezain emankorrak.

V.3.3.- *Ebidentzia dokumentala. Bateragarritzko argudio-bideak*

Kasu batzuetan oso argi dago, eguna baino argiago, multzo- eta aniztasun-adierako hitz eratorriak edo elkartuak direla horko hainbat. Hala gertatzen da, bereziki, aurreko ataleko a) eta b) pasarteetan ageri diren adibideekin: orotariko adibideei eta bizidunei dagokienez, multzo-adierako hitz eratorriak edo elkartuak dira horiek guztiak. OEHren kontestuak berak aski sostengu argirik ematen du horretarako, hiztegi-gileek beraiek horrelaxe definitu izanaz gainera. Hor ez dago eztabaida handirik, beraz: multzo-elkar-teen korrelato zuzena da *A-alde* moduko eratorpen-sail hori¹²⁷.

- a) Orotarikoetan, ikus adibidez Duvoisin-en “biltzen dituzte guk ez-bezalako *bibi-aldeak*” (Lab, 131). Ikus orobat, hitz-moldaera honen hedadura geografikoa zabalduz, Zaraitzuko *zorralde*: “cúmulo de deudas”(OEH, XVI: 860, 904). Adibide horietan ez dago, bistan denez, leku-usainik txikiena.
- b) Bizidunen artean (gizaki eta abere), adibideak asko dira. Bai adibide zaharrak eta bai berriagoak, bai prosa landukoak eta bai aho-hizkera jatorretik hurbilago daudenak. Azken hauei gagozkiela, “norbaitek gustuko *pertsu alde* bat irakurtzen badu” zioen Xalbadorek, *Odolaren mintzoan*, eta aurreraxeago “harat biltzen denean gure *haur-aldea*”. Esaldi horiek aurrean ditugula, bistan da multzo-adiera garbiko eraikuntzaz ari dela bietan: multzo-elkarte molde batez, ez leku-edo zati-usaineko hitzartez. Nolanahi ere, eta hori dugu atal honen xede nagusia, eratorpen-atzizki zein hitz-elkarte izan begien bistan da multzo-adiera garbiko lexemak jaulki direla hor, Urepeleko artzainaren ezpainenetik. Beste horrenbeste esan liteke Polikarpo Iraizozen erabileraz, honako esaldi honetan: “*Yende-alde*¹²⁸ guziak ere, ori ikusirik, Yainkoa gorai patu zuen”(YKBiz 366).

¹²⁷ *Zamari-jendea, mando-jendea, asto-jendea* bezain multzo-adiera du *A-alde* horrek. Kasu konkretuotan erraz da antzematea, behinolako hitz-elkarte mota bizi eta emankor baten azken arrastoen aurrean gaudela. Eratorpenez hitz egitea zilegi da horrelakoetan, *artalde* moduko adibideetan hizkuntzalarrietatik kanpora inor gutxi *alde* horren (konkretuki: bi artalde desberdin horien) autonomia lexikalik antzematen duelako eta, gainerako kasuetan ere, autonomia hori azpieuskalki jakinera mugaturik dagoelako. Hizkuntza bera diasistema dela onartzen den neurrian, ordea, bistan da sailkapen hori aski diskutigarria dela.

¹²⁸ *Jendalde*-ren definizioa honela ematen du OEHk: “grupo de gente, multitud”. Nekez bila liteke, multzo eta aniztasun adierako hitz eratorri argiagorik.

Pertsonekikoan argi badago kontua, are argiago dago multzo-izaera hori abereekikoan. Ikus adibidez, gainerakoan argigarri, *urdalde* sarrera lexikaleko hainbat argibide: *Urdalde*, piara de cerdos. Balioki-deak: *urde-multzo*, *urde-saldo*, *urde-tropa*, *txerri-talde*.

Labur bilduz, argi dago multzo- eta aniztasun-adiera argia dutela, oro har, a) eta b) saileko adibideek. Goiko sailkapenaz baliatuz, a) eta b) saileko adibideek *alde₁* adiera dutela esan liteke oro har¹²⁹.

Zer gertatzen da, ordea, c), d), e) eta f) sailtakoekin? Hor ez dago aurreko bi sailetan bezalako oinarri dokumental zabal eta argirik, aldeko zein kontrako baieztapen sendorik egin ahal izateko. Toponimoetan, bereziki, lan zaila da adiera-finkapen hori. Zaila izateak ez du esan nahi, ordea, ezinezkoa denik. Ez da egia, aurrerago ikusiko denez, erabilera-eremu horretako adibideen artean inolako ebidentziarik ez dagoenik. Badago horietan ere zenbait ebidentzia eta, ene ustez, multzo-adieraren (hiru multzo-adiera posibleetako baten edo besteren, gehienetan *alde₁* edo *alde₂* adieren) alde mintzo dira ebidentzia kontrastatu gehienak. Ebidentzia dokumentalik ez dagoen (zuzenago esanik, aurkitzera iritsi ez naizen) kasuetan, berriz, behin-behineko izaeraz izango bada ere bateragarritzko argudio-bidea eskain daiteke. Ikus dezagun nola.

c) moduko adibideak (fitonimoak)

artalde (*arto*-tik, ez *ardi*-tik) eta *galalde* (*gari*-tik) kasuetan, OEHk dioenaz *-alde₃*, da bertako adiera. Hots, Ak determinatzen duen *B-multzoa*. Gainerakoetan (adibide gehienetan: *gaztainalde*, *gorostialde*, *larralde*, *lizarralde*, *pagalde*, *sagarralde*, *zumalde*...) ez dago, gaur-gaurkoz, ebidentzia dokumental argirik *-alde* mota baten edo besteren alde. Orain arteko bilketaren arabera, *-alde₁* eta *-alde₂* dira esplikatzeko errazena eta gainerako adibideekin bateragarrienak. Hots, ikusmolde

¹²⁹ Nahi adina adibide eman liteke, irizpide horren alde. Ikus esate baterako, OEHtik jasotako banaka hauek: *Urdalde*, *urde-alde*, *urde-multzo*, *urde-saldo* *urde-tropa*, *txerri-talde* <<piara de cerdos>> OEH, 795. “Bil zedin jendalde bat” Lç Act 2, 6. “Jarreiki zekion jendalde bat” Lç Mt 122, 15. “Yendetze handi” TB. “Ate-ondoan deadarka dagon Yendalde bekatariari” Or Mi 145 (Eus 235 jende-aldi). *Artalde* OEH, 715 (Rebaño de ovejas, manada de ganado, troupeau de brebis, carnerada, aprisco,..). “Artaldetako bildotsik gizenenak”, “Hi haiz gure artzaina, eta gu hire arthaldea”. *Gizalde* OEH, 612. *Jendalde* OEH, 207. (*jendaldi*; *jendaki*) (grupo de gente, multitud; troupe de monde; gentes, multitud de gentes; tropa). *Jendaki*: <<pueblo nación papulation>>. Cf. *jendemende*, *jendamende*, *jendaila*, *jendalia*. *Behorralde*, *behor-talde*, *behor-sail*, *behor-eli*, *behordi* <<Yeguada>> OEH, 675. *Abuntzalde*, *ahuntz-talde* <<rebaño de cabras>> *ahuntz-aralde*, <<troupeau de chèvres>>, *ahuntz-samalda* <<rebaño de cabras>>, *ahuntz-sail* OEH, 320-3.

horren arabera *lizarralde* hitzaren esplikazio probableena “lizar-*multzoa*”(-*alde*₁) edo “lizar-*multzoa* dagoen lekua” (-*alde*₂) da. Aukera bat edo beste egin, nolahi ere, *aniztasun*- edo *multzo*-adiera dugu oinarrian: *lizar asko*, *pago asko*, *haritz(ondo)-multzoa* eta abar. Hor ez dago, beraz, *gainalde*, *sabelalde* edo *zerualde* moduko hitz-elkarterik: *sabelaldean* ez dago *sabel asko* edo *sabel-multzorik*, *aurrealdean* ez dago *aurre asko* edo *aurre-multzorik* eta *itsasaldean* ez dago *itsaso asko* edo *itsaso-multzorik*. Are gutxiago denbora-ardatzeko *negualde* edo *goizalde* modukoetan.

d) moduko adibideak (mendi-, haran- eta lurrazal-izenak)

Adibideak ikusi ditugu: (*h*)*aitzalde*, (*h*)*arralde*, *mendialde*, (*h*)*aranalde* (cf. *haranaga*), *gailurralde*, *arenalde* (cf. *areatza* eta *arenaza*), *legarralde*, *aialde* eta *harrialde*. Zer dio sail honetako ebidentzia dokumentalak?

Kasuren batean edo bestean badago ebidentzia dokumentalik, eta ebidentzia hori *alde*₁ formaren aldeko da, erabat edo nagusiki. Ikus, batetik, *harrialde* (OEH III, xxx): “arri-*alde* gogorra: gran *montón* de piedras”. *Arralde* ere, bestalde, *multzo*-adiera horren ildotik doa nagusiki: “*roca*” (OEH III, 552).

Multzo-adiera argia du, lehenengo adibidean, *-alde* horrek. *Multzo*-adiera duela dirudi, OEHko definizioaren arabera, bigarrenean ere. Gainerako adibideei dagokienez ez dugu ebidentzia zuzenik eskuratzerik izan. Itxura guztien arabera, beste kasu horietan ere *alde*₁ eta *alde*₂ dira kasuan kasuko hitzak eta hitzarteak esplikatzeko errazenak, eta gainerako adibideekin bateagarrienak. *Haranalde* eta *arenalde*, horrezaz gainera, *-aga* eta *-tza* *multzo*-atzikien pare-parean ageri dira. Besterik frogatzen ez den artean, *alde*₁ eta *alde*₂ adieren alde mintzo dira horiek ere.

e) moduko adibideak (hidronimoak)

Hemen ere emana dugu, lehendik, zenbait adibide: *ubalde* (*ugalde*,...), *la(t)salde*, *errekalde*, *iturralde*, *osinalde*, *urbialde* (cf. *urbietta*). Bada motiborik, *iturralde* hori erdarazko (*Muchas Fuentes*-en baliokide zahar bat (beraz, *-alde*₁) izan litekeela uste izateko¹³⁰. *Uhalde*¹³¹ kasuaz,

¹³⁰ Roberto Gonzalez de Viñasprek eta Pedro Uribarrenak, hain era sistematikoan aurrea daramaten Trebiñuko toponimia-lanketaren ildotik, Parizako toponimia historikoa argitaratzeko dute aurten. Konkretuki, “Toponimia histórica de Pariza (Condado de Treviño)” artikulua. Eskuartean darabiltzaten dokumentu batzuetan *Iturraldea* eta bere aldaerak aurkitu dituzte batetik (*Turraldia* 1690; *Turrialdia* 1696; *Turraldia* 1714, 1740, 1753, 1819, 1956, 1992), eta *Muchas Fuentes* bestetik (1770). Konprobatu gabe dago oraindik,

azkenik, azepzio bat baino gehiago dakar OEHk. Horiatariko bat, bigarrena konkretuki, *alde_i* adieraren indargarri garbia da: 2.- riada, avenida, inundación, torrente, <<avenida, creciente de los ríos, turbión de agua>>, <<le déluge, le débordement>>, <<diluvio>>, <<ola que inunda>>, <<río>>, <<lluvia torrencial, aguacero>>, <<cantidad de agua, caudal>>, *ubaldeka*, *ugaldeka* <<a raudales>> OEH, 627-8. Ugaritasun- eta multzo-adiera argi dago, beraz, azken esplikazio horietan ere.

Begien bistan dago, azkenik, *osinalde* horrek *osinaga* duela uztarkide, eta *urbialde* horrek *urbieta*¹³². Hots, *alde_i*-en edo *alde₂*-ren pareko aniztasun- eta multzo-atzizki diren *-aga* eta *-eta*. Aldeko edo kontrako ebidentzia sendagoen faltan, kontuan hartzekoa iruditzen zait bate-ragarrizko argudio-bide hori.

f) moduko adibideak (eraikinak)

Ikusia dugu, alor honetan ere, zenbait adibide: *etxalde* (*etxalte*), *olalde*, *bordalde* (*bordalte*), *eiberalde* (*eiberalte*), *errotalde*, *labalde* eta *zubialde*. Zer esan liteke, adibide horien gaineko ebidentzia dokumentalaz? *Etxalde* (*etxalte*) eta *bordalde* (*bordalte*) kasuetan nahiko garbi dago, gure ustez, *-alde₂* adiera dela hurbilenekoa. Etxe batek, bere dependentziek eta lur-sailek (oihanak barne) osatu izan dute *etx-aldea* (*etxalte*)¹³³, eta antzera *bordaldea* (*bordalte*). Eraikin- eta lur-multzo horrek, edo horren ingurumeneko lekuak (Peillen, 1991).

egileen esanean, dokumentu biak Parizako *iturralde* berberaz ari diren. Galdera horri bihar-
-etzi eman ahal izango zaion erantzunak badu garrantzia, jakina, eskuartean dugun auzira-
ko. Emaizta baiezkoa edo ezezkoa izan, esanguratsua da aurkikundea nolnahi ere: euskal
eta erdal toponimoen baliokidetza konfirmatzen bada eta ez bada, aniztasun-adiera garbi
ageri da erdal itzulpenen behintzat. “Muchas fuentes” gertatu zen, aspaldi hartan, bertako
hidronimo batentzat erdal baliokide egokia, eta ez “lado de la fuente”, “cerca de la fuente”
edo “sitio de la fuente”.

¹³¹ Uhalde eta bere kideak, noski: *Uhalde*, *uralde*, *ubalte*, *ubalde*, *ubelde*, *udalde*, *ugalde*,
ugalte, *ujalde* eta *uralde*.

¹³² *Osin-alderen* kasuan, *-alde_i*-en alde ageri da OEH, 13, 676: Lugar donde se encuen-
tra el estanque, el pozo. Baina adibide bakarretik ezin esan liteke, leku edo aniztasun denik.
Aldiz, *osinaga* honela definitzen du Larramendik OEH, 13, 676: <<los parajes profundos y
frecuentes del río>>. Antzera H << Lieu où les gouffres , les tourbillons, les précipices sont
fréquents>>. Hots, *-alde₂*.

¹³³ Ikus *etxalde*, *etxalte*, *etxealde*, *etsalde* in OEH, 7, 517: “caserio (incluyendo las tierras
de su propiedad) hacienda, propiedad, casería, alquería, <<las caserías cercanas a los pueblos
se llaman echaldes>>. “Oihanik ez duen etxaldea murriztik dago” Dv Lab 303.

Antzera definiturik dator *olalde*, *olhalte* ere: <<pastizal alrededor de una cabaña>>¹³⁴.

Aldiz zailagoa da, ondotoxoz, *errotalde* modukoetan jatorrizko adiera bilatzea: *bolinaga*, *borinaga*, *bolueta* (hots, *Molineda*,) adibideak *alde₁* edo *alde₂*-ren bozemaile dira, alde batetik. Gaurko adiera nagusia, aldiz, *-alde₁*-ren bidetik doa ia aho batez. Kasuan kasuko ikerketak argitu beharko ditu, seguruena, alor honetako adiera kontuak.

Labur bilduz: a) eta b) alorreko adibide guztiak *alde₁* modukoak dira. Hots, aniztasun- eta multzo-adierazle huts. Hortik aurrerakoetan, kasu asko zehazki frogatu gabe dago. Oinarri dokumental argieneko kasuetan, *alde₁* eta *alde₂*-ren adierak ageri dira OEHN maizenik jasoak. Beste adierak ere posible dira, ordea¹³⁵.

VI. ZENBAIT ONDORIO ETA AZTERKIZUN

VI.1. Arrazoi zuen R. M. Azkuek, hainbat eratorpenetako *alde* elementua jatorriz aniztasun- edo multzo-adierazle izana dela eta adiera hori gaurko *talde* lexeman bizirik gorde dela esatean. *alde₁* horren adibide kontrastatuak identifikatzen ahalegindu gara artikulu honetan, eta hainbatekin topo egin dugu OEHN.

VI.2. Garbi gelditu da hori, batez ere, zenbait alor semantikotan: bizidunetan, bereziki. Beste zenbaitetan ere adibide askotxo daude, bakanagoak eta determinatzen zailagoak izan arren, bide horretan barrena doazenak: *pertsu-alde*, *harrialde*, *galalde* (*gari*-k determinaturiko lur-*multzoa*) eta abar¹³⁶.

VI.3. Euskalki gehienetan galdurik dago gaur egun (aspaldi samarretik galdua, itxuraz), *alde₁* moduko multzokari edo aniztasun-adierazlearen bizi-endarra. Nafarroa Garai eta Beherekoan ageri du soilik, XX. mendera arte,

¹³⁴ Aurrez aurreko kontrastea egiten saiatu naiz iparraldeko zenbait hiztun garbirekin, tartean euskaltzain batekin, eta multzo-adiera antzematen dute haiek ere *etxalde*, *bordalde* eta *olalde* adibideetan. Hiztegi-tako multzo-marka hori bizirik dago, beraz, hitz horiez baliatzen diren hiztunen artean.

¹³⁵ Posible dira adibide berriagoetan, batetik; eta ez dira ezinezkoak, zaharragoetan ere.

¹³⁶ Bizigabeetan zer? Toponimia da, gaurkoz, bizigabezko izen zahar askoren bilgune. Zoritxarrez, hiztegiek gutxitan jasotzen dituzte honelako hitzak, eta gutxiagotan esplikatzen. Laguntza mugatua jaso dezakegu, beraz, horietatik.

nolabaiteko bizitasuna. Lehenagoko adibideak, *aktiv aber nicht produktiv* modukoak¹³⁷ tartean direla, Euskal herri osoan dokumentaturik ageri dira ordea.

VI.4. Leku-izenetan, eta hortik pertsona-deituretan, ugariak dira horrelako hitz eratorriak. Toponimiarako, Onomastikarako eta antzeko azterkizunetarako garrantzitsua da, beraz, *-alde₁* zahar horrekin osaturiko hitzen analisia. Horrekin eta, itxuraz sarriago, *-alde₂* adierako atzizkiarekin.

VI.5. Horrek ez du esan nahi, jakina, *-alde* atzizki guztiak edota hitz-*-elkartezko A-alde* guztiak aniztasun- edo multzo-adierazle direnik. Argi azaldu da, aitzitik, komunzki leku-adierakotzat jotzen den hainbat *A-alde* dagoela egon gure artean eta, bereziki, ugariak direla azken mende t'erdi honetan (batez ere azken mende erdian) sortuz doazen horrelako morfema-erakuntzak.

VI.6. Leku-adiera askoren kasuan, batez ere ohiko hitz-*elkartean*, bada go zer erantsirik. Ohiko *A-alde* askotan, *-alde* horren adiera ez da *lugar* edo *lekua*, *lado* edo *partea* (hots, leku-zatia edo unitate fisiko, espazial edo kontzeptual zabalago baten *partea*) baizik. Bestela esanik, kasu horietan ere zati-izaera berezkoagoa du *alde*-k, leku-izaera baino: Axularren *aitzinalde*, *barrenalde*, *gainalde* edo *gibelalde* modukoetan, leku-zati bat adierazten da lehenik eta behin. Posizionaltasuna *alde*-k ematen dio, bai, baina lekua bera ez dago ezinbestean *alde* elementuan, *aitzin*, *barren*, *gain*, *gibel* horietan baizik. Alde handia dago, alde horretatik, gure *barrenalde* / *gainalde* modukoetatik alemanezko¹³⁸ *Richtung und Gegenrichtung* (Henzen: 1969) moduko adierazleetara.

VI.7. Lexiko-berrikuntzaren alorrean, aldiz, hutsaren hurrengoa da multzokarizko *alde* atzizkiaren garrantzia. Oso kontuan hartzekoa da, aitzitik, *-alde₄* moduko lekua: *iparralde*, *lurralde*, *zonalde*, *industrialde*, *merinalde*,... batetik, eta *A-talde₂* moduko ugaritasuna bestetik.

VI.8. Gauza asko dago, nolana ere, alor honetan aztertu eta argitzeko. Azterketa horien pizgarri izan nahi luke, lehenik eta behin, Jean Haritschelhar adiskidearen aldeko esku-erakutsi xume honek.

VI.9. Badago motiborik, Azkuek bere azalpenean arrazoi zuela eta aniztasun- edo talde-adiera hori zaharragoa, barnekoagoa dela uste izateko. Lehen ikusi dugu "A asko, A-multzoa dagoen lekua" maiz gertatzen dela. Maiz ger-

¹³⁷ cf Fleischer 1975, 71. or.

¹³⁸ Alemanezko eta, dakidan apurrean, Mendebal-Europako beste hainbat hizkuntzatarako adierazleetara dago alde, oro har. Alde horrek eragiten du, bide batez, aditzetako posizio- eta posizio-adierako aurrizkien euskal ordainen eskasia.

tatzen dela eta adibideak aspaldidanoak direla. Aitzitik, “A-leku asko, A-leku multzo” modukorik ez da, aldiz, erraz bilatzen. Hitz-elkartezko edo eratorpenezko *A-alde* zaharretan, konkreturik, ez dugu adibide bakarrik aurkitu. Ez da hori, nolana ere, argudio-bide ahula.

BIBLIOGRAFIA

- ADOREZ ZAZPI. 1996: *Hiru Mila Hiztegia*. Bilbo: “Bostak bat”.
- ARBIZU, Nicolas. 1990: “Toponimia de Iturmendi”, in *FLV*, 261-75.
- AZKUE, R.M. 1905: *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo.
- 1923-24-25: “Morfología Vasca”, in *Euskera*. Erabilitako iturria: 1969ko berrargitalpena, *La Gran Enciclopedia Vasca*-rena.
- BALDINGER, Kurt. 1950: *Kollektivsuffixe und Kollektivbegriff. Ein Beitrag zur Bedeutungslehre im Französischen mit Berücksichtigung der Mundarten*. Berlin.
- BERGER, Dieter. 1993. DUDEN. *Geographische Namen in Deutschland*. Mannheim-Leipzig-Wien-Zürich, Dudenverlag.
- CIERBIDE, Ricardo. 1995: “Toponimia Alavesa: Apeo de Vitoria y su jurisdicción de 1481-1486”, in *FLV*, 97-129-
- COROMINAS, Joan. 1987: *Breve Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*. Madrid, Ed. Gredos
- DOKULIL, M. 1964: “Zum wechselseitigen Verhältnis zwischen Wortbildung und Syntax”, in *Travaux linguistiques de Prague*. 1, 215-24. Praga.
- 1968: “Zur Theorie der Wortbildung”, in *Wissenschaftliche Zeitschrift der Karl-Marx-Universität: Gesellschafts- und Sprachwissenschaften*, Reihe 17, 203-11. Leipzig.
- ERBEN, J. 1959. “Zur Geschichte der deutschen Kollektiva”, in *Sprache, Schlüssel zur Welt*. Festschrift f. L. Weisgerber. Düsseldorf.
- FLEISCHER, Wolfgang 1975: *Wortbildung der deutschen Gegenwartssprache*. (4. argitaraldia) Tübingen: Max Niemeyer Verlag.
- GUILBERT, Louis 1975: *La créativité lexicale*. Paris, Larousse.
- HENZEN, Walter 1965: *Deutsche Wortbildung*. (3. argitaraldia). Tübingen.

- 1969: *Die Bezeichnung von Richtung und Gegenrichtung im Deutschen*. Tübingen, Max Niemeyer Verlag
- KÖNIG, Werner. 1992 (lehenena 1978) *dtv-Atlas zur deutschen Sprache*. München, DTV.
- KUNZE, Konrad. 2003 (lehenengoa 1998): *dtv-Atlas. Namenkunde*. München, DTV.
- LOPEZ-MUGARTZA, Juan Karlos. 1993: “Izabako lekuizenak”, in *FLV*, 273-324.
- MARCHAND, Hans. 1960: *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*. Wiesbaden, Otto Harrassowitz.
- MARTINET, André (zuz.) 1972: *La Lingüística. Guía Alfabética*. Barcelona, Editorial Anagrama. Jatorriz (1969) *La Linguistique, Guide Alphabétique*. Paris, Editions Denoël
- MATTEWS, P. H. 1980: *Morfología. Introducción a la teoría de la estructura de la palabra*. Madrid, Paraninfo.
- MICHELENA, Luis, 1973 (3. argitaraldia): *Apellidos Vascos*. Donostia, Txertoa.
- 1976: *Fonética Histórica Vasca*. (Bigarren argitaraldia). Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Julio Urquijo mintegia.
- MICHELENA et al, 1987-2005: *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo, Descle de Brouwer eta Ediciones Mensajero.
- MOLINER, María. 1982: *Diccionario de Uso del Español*. Madrid, Ed. Gredos
- PEILLEN, Txomin. 1991: “Andoze ibarreko leku izen nagusiak eta xeheak”, in *FHV*, 89-105
- SALABERRI, Patxi. 1991: “-doi atzizkiaren ondorengoak Nafarroan”, in *FLV* 13-53
- SANTESTEBAN, Isaac. 1992: “Hidronimia Navarra”, in *FLV*, 481-545.
- TIETZE, Godhard o. A. 1974. *Einführung in die Wortbildung des heutigen Englisch. Typen und Prozesse*. Tübingen, Max Niemeyer Verlag.
- WANDRUSZKA, Ulrich 1976: *Probleme der neufranzösischen Wortbildung*. Tübingen, Max Niemeyer Verlag.
- ZALBIDE, Mikel. 1987. “Hitz Elkartuen sailkapen-saioa”. In *Hitz-elkarketa 1*. Bilbo, Euskaltzaindia.
- 1992: *Hitz Elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo: Euskaltzaindia.